**2.001**

# LEITZA 2001

## Tiburzio Donearen Pestak



**Abuztuak 10-15**

PLAZAOLA
23. ZKIA

# AGURRA

Iepe herritar:

Urte bete luzez esperoan egon ondoren, ailatu zaizkigu bada pestak berriz ere. Hementxe ditugu ate joka!

Deustan hasi baino lehen ordea, bihoakio Udalaren izenean Leitzako zinegotzi zen Jose Javier Mugicari oroimenezko agur zintzo bat. Une gogor hauetan, Leitzan beste kasu askotan egin dugun moduan, aurrerantz begiratu behar dugu eta ahal den lasaien hartu eta hoztasunez jokatu.

Aurrera jarraituz, dagoenekoz gure legealdiaren erdia igaro dugu eta herrirako egitasmo oso haundiak zirenak, iada egi dira, aurrera doaz. Eta hemendik gerora ere saiatuko gara aztarrika! Jakina, ezinezkoa da beti eta denekin asmatzea, baina saiatuz gero, ez da gutxi! Bidean topatzen ditugun eta jartzen dizkiguten trabak eta zailtasunak gainditux, aterako gara!

Pesta batzordeak ere ahal ditugun pestarik politenak, ikuskarrienak, herrikoienak, atseginenak prestatu ditugu, zenbait berrikuntza eta berriketa tartean direla. Orain ikuskizunak ikusi, entzun, dastatu eta pesta-giroan murgildu eta parte hartzea gelditzen zaigu herritar guztioi eta nola ez, kanpotik etorriko diren pestarleeri ere. Eta noski, jai-egun hauetan ere, ezin gaitezke presoez ahaztu, Leitzan ez eze, Euskal Herriko edozein herritako jaietan gurekin behar bitugu.

Beraz, egun apart hauetan ongi eta lasai ibili,

zintzoak izan

eta batez ere euskaraz mintzatu eta bizi!!

GORA TIBURTZIO DONEAREN PESTAK!

GORA LEITZA!

**LEITZAKO UDALA** eta **AURRERA K.E.-ak**

*Herritar eta bisitari guztiei JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUETE*

# Abuztuak 4 larunbata

## EGITARAU BANAKETA

13.00tan banaketan ibiliko diren lagunak bilduko dira trikitilariz, ziztulariz, soinulariz lagunduta. Eta gero...

14.30tan **bazkaria** izanen dute Oialden.

16.30tan auzoz auzo **PLAZAOLA aldizkariaren banaketa**.




TXOTXA

# Abuztuak 10 Ostirala

## PESTA BEZPERA

11.00tan koadrilen arteko **Herri Kirol** jokoak plazan.

14.30tan herri kirolarien eta jubilatuen bazkaria.

18.00tan Udaletxeko balkobetik **Txupinazoa** botako da, pestei hasera emanez.

Ondoren **Plazaola** aldizkariaren **azalaren** lehiaketako irabazle izan den **Estitxu Kaballerori sari** ematea.



AURRERA

Eta gero, **INCANSABLES** txaranga eta **ERRALDOI**en Konpartsa eta **BURUHAUNDIAK** herriko atari eta txokoetaz jabetuko dira musika, saltoak eta laisterraldiak zabalduz.

22.00tan **Suzko Zezena** plazatik atera eta ohiko ibilbidean barrena.

00.00tan **FRANKY TORRES**en saltsa eta merengea plazan, nahi dutenek gerrialdeei astinaldia emateko. Dultzemeneoa!



TXOTXA

# Abuztuak 11 Larunbata

## TIBURTZIO DONEAREN EGUNA

**8.00tan** **Diana.** Ziztulariek alde zaharreko buelta eginen dute, Dultzaineroek berriz Amazabal auzoari eginen diote ikustaldia.

**9.00tan** **entzierroa** eta **zezenak** plazan.

**10.30tan** **Kantatutako Meza,** Udal Ordezkariak eta Ezpatadantzariak ere bertan izanen direlarik.

**12.00tan** **Ezpatadantza** saio paregabea plazan.

**ondoren** **Pilota** Partiduak.



TXOTXA



TXOTXA

**17.30tan** **ASEGARCE** enpresako pilotari profesionalen partiduak pilotalekuan.

**18.00tan** **zezenak** eta **behiak** plazan.

**19.30tan** **Meakako Adixkideak** helduen dantza taldearen saioa plazan.

**20.30tan** **GALIZIA** Ukraniako Folk Musika Taldea plazan.

**22.00tan** **Suzko Zezena,** keia eta txinpartak darizkiola.

**ondoren** harripetatik ere jendea etortzen hasiko da

**00.00tan** **ALAITZ ETA MAIDER**en doinuekin dantzaldia plazan, sartzen bagara!.

# Abuztuak 14 Asteartea

## KOADRILEN EGUNA

8.00tan **Diana**. "Ziztulariek ohikoak esnatuko dituzte eta dultzaineroek berriz, Patxi Arrazola auzokoak".

9.00tan **Entzierroa** eta **behiak** plazan.

11.30tan **pilota** partiduak plazan.

12.30tan **Koadrilak** plazan bildu eta ondoren poteoa eginen dute txarangarekin batera.

14.30tan **Herri Bazkaria** Plaza Zaharrean.

ondoren ze ikusia eta ze ine!

askoz ere gerogoan, Koadrilen jetsiera txarangarekin.

18.00tan **zezenak** plazan.

19.00tan **bertsolariak** plazan:

Amaia Agirre

Igor Elortza

Amets Artzallus

Andoni Egaña

22.00tan **Suzko Zezena** adarrak uker-uker dituela.

00.00tan **SEGABATHOR**en eta **SKUNK** ska taldearen kontzertua plazan.



ANTTON



MALLO

# Abuztuak 15 Asteazkena

## BIKOTE ETA EZKONDUEN EGUNA

8.00 tan **Diana**. Ziztulariek beren bidea eginen dute.

9.00tan **Entzierroa** eta **zezenak** plazan.

12.00tan **Herri kirolak:**
**Harri jasotzaileak:**
**Inaxio eta Iñaki Perurena** aita-semeak,
Izeta aita-semeak eta Zelai.

**Soka tira.**



AURRERA

14.30tan AURRERA KEko bazkideen **bazkaria** elkartean bertan.

16.30tan **GOLOKA BERBENA** umeentzat plazan: jokoak, dantza, antzerkia ...

18.00tan Bikoteen **entzierroa** eta **behiak** plazan.

19.00tan Bikoteen **Ingurutxoa**.


AURRERA

20.00tan **INCANSABLES** txarangaren emanaldia plazan.

00.00tan **LOS CHARROS** mariachia plazan.

02.30tan **PESTEN BUKAERA.** Labetxeko atarian hasi eta buka.

## SABADO, 4 DE AGOSTO
### REPARTO DE PROGRAMAS

13.00: Poteo con los músicos del pueblo.
14.30: Comida para los que van a salir en el reparto de programas.
16.30: Reparto de programas.

## DOMINGO, 5 DE AGOSTO
### DÍA DEL NIÑO Y DE LA NIÑA

08.00: Diana.
10.00: Carrera ciclista a cargo de la escuela de ciclistas AIZAN en Landa.
10.30: Misa Mayor presidida por la Corporación Infantil.
11.30: Partido de pelota a cargo de la escuela de pelota del AURRERA KE. y los pequeños aizkolaris Migel Olano y Beñat Saralegi.
**A continuación:** Juegos e inchables.
17.30: Actuación de los Dantzari Ttikiak.
19.00: Tamborrada infantil.
20.00 a 24.00: Actuación de XAPO.

## VIERNES, 10 DE AGOSTO
### VÍSPERA DE FIESTAS

11.00: Herri Kirolak de la mano de los jóvenes del pueblo.
14.30: Comida de los jubilados y los kirolaris.
18.00: Comienzo de las fiestas con el chupinazo y el repique de campanas. Acto seguido, se hará entrega del premio a la ganadora del concurso de la tapa del Plazaola, Estitxu Kaballero.
**A continución:** La charanga INCANSABLES y la comparsa de gigantes y cabezudos, junto con los gaiteros y txistularis darán la vuelta en al pueblo.
00.00: Actuación del salsero y merenguero FRANKY TORRES en la plaza.

## SABADO, 11 DE AGOSTO
### DÍA DE SAN TIBURTZIO

8.00: Diana. Los gaiteros irán al barrio Amazabal.
9.00: Encierro y vacas en la plaza.
10.30: Misa Mayor cantada. Asistirá la Corporación del Ayuntamiento con la presencia de los Ezpatadantzariak.
12.00: Ezpatadantza.
**Después:** Partido de pelota.
17.30: Partidos de pelota profesional de la empresa ASEGARCE en el frontón.
18.00: Vacas en la plaza.
19.30: Grupo de dantzaris MEAKAKO ADISKIDEAK, en la plaza.
20.30: Actuación del grupo de música folk GALIZIA de Ucrania.
22.00: Toro de fuego.
00.00: ALAITZ ETA MAIDER en la plaza.

## DOMINDO, 12 DE AGOSTO
### SEGUNDO DÍA DE FIESTAS

8.00: Diana.
10.00: Encierro y vacas en la plaza.
12.00: Exhibición de deporte rural: aizkolariak, harrijasotzaileak, laisterkariak.
18.00: Vacas en la plaza.
19.00: Dantzaris del AURRERA KE.
20.30: Actuación de los trikitilaris AINARA ETA HAR KAITZ.
22.00: Toro de fuego.
00.00: ETZAKIT en la plaza.

## LUNES, 13 DE AGOSTO
### TERCER DÍA DE FIESTAS

8.00: Diana.
9.00: Encierro y vacas en la plaza.
10.00: Carrera de ciclistas junior en el circuito Ozparruncruce de Areso.
11.30: Campeonato de calderete y ajoarriero.
**A la misma hora**, entrega de premios de la carrera y presentación del grupo de ciclistas LEITZA.
12.00: Exhibición de motosierras de Berastegi.
**A continuación:** Entrega de premios a los cocineros y cocineras.
15:00 a 18:00: Inchables en las piscinas.
18.00: Vacas en la plaza.
19.00: Perros pastores de ocas.
**A la misma hora,** partidos de pelota profesional de la empresa ASEGARCE en el frontón.
20.00: Actuación de la charanga INCANSABLES en la plaza.
22.00: Toro de fuego.
00.00: IRUÑA BAND en la plaza.

## MARTES, 14 DE AGOSTO
### DÍA DE LAS COADRILLAS

8.00: Diana. Los gaiteros irán al barrio Patxi Arrazola.
9.00: Encierro y vacas en la plaza.
11.30: Partidos de pelota en la plaza.
12.30: Reunión de las coadrillas en la plaza y luego poteo.
14.30: Comida popular en la plaza vieja.
18.00: Vacas en la plaza.
19.00: Los Bertsolaris EGAÑA, ARTZALLUS, AGIRRE y ELORTZA en la plaza.
22.00: Toro de fuego.
00.00: Concierto de SEGABATHOR y SKUNK en la plaza.

## MIERCOLES, 15 DE AGOSTO
### DÍA DE LAS PAREJAS

8.00: Diana.
9.00: Encierro y vacas en la plaza.
12.00: Deporte rural con harrijasotzaileak y soka tira.
14.30: Comida de socios del AURRERA KE.
16.30: GOLOKA BERBENA para los niños y niñas en la plaza.
18.00: Encierro y vacas en la plaza.
19.00: Ingurutxo de las parejas.
20.00: Actuación de la charanga INCANSABLES en la plaza.
22.00: Toro de fuego.
00.00: El mariachi LOS CHARROS en la plaza.
2.30: Pobre de mí.

# Oharrak • Avisos

1. INCANSABLES txarangak arratsaldero eta gauero alaituko ditu herriko bazterrak.
2. BURUHAUNDIAK txarangarekin aterako dira arratsaldero.
3. UDALAK ez du behiekin gerta daitezkeen istripuetan erantzukizunik.
4. Behietan dabiltzenei ihesbidea errazago egiteko, BARREREN gainean ezin daiteke INOR jarri.
5. EGITARAUA borondatearen truke banatuko da, bai udaletxean, bai liburudendetan, eta baita tabernetan ere.
6. AURRERAKO BAZKIDEEN BAZKARIRA joan nahi duenak, txartelak abuztuaren 13.a bitartean salgai izanen ditu, Torrea eta Txoko tabernetan.
7. SUZKO ZEZENAren ibilbidea honakoxe hau izanen da: plaza - Korte eta Torre arteko estarta - Txatxuneko atzea - Malkorra eta Korrene arteko estarta - kalean behera - Etxe Txuri eta Gogortzane arteko estarta - plaza.
8. Udala ez da suzko zezenarekin gerta litezkeen erreketen edo bestelakoen erantzule egiten.
9. GOZOKIAK arratsaldeko ekitaldia bukatutakoan banatuko dira, egunero.
10. KALDERETE ETA AJOARRIERO lehiaketarako arauak: bakoitzak bere sua eraman behar du, noski nahi duen jakia prestatu dezake, horretarako osagaiak ere norberak eramanez noski. Kaldereterako nahita ezko osagaia konejua da eta ajoarrierorako berriz, bakailoa. Hortik aurrera, bakoitzaren gustoaren eta trebeziaren ariora ... Epai-mahaiak hartuko ditu erabakiak.
11. Azken urte hauetan maldan behera doan GAUEKO INGURUTXOA suspertzeko saioa eginen da. Igandetik astelehenerako gau horretan joko da plazako musika bukatutakoan eta bertan parte hartzeko gonbitea egiten da. Ia txukun-txukuna ateratzen zaigun!

1. La charanga INCANSABLES saldrá todas las tardes y noches.
2. Los CABEZUDOS-BURUHAUNDIAK saldrán todas las tardes junto con la charanga.
3. El Ayuntamiento no se hace cargo de los accidentes que ocurran el las VAQUILLAS.
4. El público asistente a las vaquillas no debe sentarse encima de las BARRERAS, para así facilitar la huída de los que se vieren en apuros ante las embestidas de las astadas.
5. El PROGRAMA de fiestas se repartirá a cambio de la voluntad en el Ayuntamiento, librerías y bares.
6. Todo socio del Aurrera KE que quiera asistir a la COMIDA DE SOCIOS, deberá adquirir su correspondiente entrada antes del día 13 de agosto en Torrea o en Txoko.
7. El recorrido del TORO DE FUEGO - SUZKO ZEZENA : plaza - estrada entre Kortea y Torrea - trasera de Txatxunea - estrada entre Malkorra y Korrenea - calle abajo - estrada entre Etxe Txuria y Gogortzanea - plaza.
8. El Ayuntamiento no se hace cargo de las quemaduras u otros percances que se puedan producir con el toro de fuego.
9. Después de las actuaciones de las tardes, se repartirán caramelos.
10. Normas par el CONCURSO de calderete y ajoarriero: cada cuál debe llevar su hornillo, y por supuesto los ingredientes para preparar el plato que haya elegido. Los ingredientes imprescindibles serán, para el calderete el conejo y para el ajoariero el bacalao. Habrá un jurado.
11. Este año se hará un intento de recuperar el INGURUTXO de la noche que estos últimos años está en declibe. Se tocará la madrugada del domingo al lunes, después de que finalice la música de la plaza. Se hace una especial convocatoria a participar en él.

## PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ARGITARATZAILEN OHARRAK

1. PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ARGITARATZAILEEK EZ DUTE BERTAN KALERATZEN DIREN IDAZKI ETA ERITZIEKIN ADOS EGON BEHARRIK.
2. IDAZKIEN EGILEEK BEREN IZENAK JAKINARAZI BEHAR DIZKIETE ARGITARATZAILEEI, SOR DAITEZKEEN LEGE-ARAZOAK BERORIEN ERANTZUKIZUN IZANEN DIRELARIK.
3. GURE ESKERRIK ZINTZOENAK, ALDIZKARI HAU OSATZEKO BEREN LANAK GUREGANATU DITUZTEN IDAZLE GUZTIEI. NOLA EZ, AZALEKO LEHIAKETAN PARTE HARTU DUTEN GUZTIEI ETA ARGAZKIAK UTZI DITUZTENEI ERE. MILA ESKER!
4. IAZKO PLAZAOLAKO ALEAN, ERRU BATEN ONDORIOZ, SARTU GABE GELDITU ZEN ASTAITZEN "ATERALDIAK" IDAZKIA, AURTENGOAN SARTU DA, LIBURUXKAN JASOTA GERA DADIN.

# URTE ASKOZ

INCANSABLES txaranga aurten 30. urtez etorriko da Leitzara. 1971.ean sortu zenez geroztik, urtero etorri da. Ez dira makalak!

Beste hainbestetan ere etorriko diren itxaropenez,

**ZORIONAK!**

**BEJONDEIZUELA!**

**ETA MILA ESKER!**



# ORAIN BITXIKERI, GARAI BATEAN LEGE!

Bakoitza bizi den herriko historia ezagutzea oso garrantzitsua da, hori aztertuz, nondik heldu garen, nondik sortutakoak, eta nola garatutakoak garen ikasiko baitugu. Garai desberdinetako gertakari "haundien" berri izango genuke. Baina zalantzarik gabe, historiaren ezinbesteko osagaia, herrietako historia da, gure herrietako gertakariek, gure herrietako pertsonaiek, gure herrietako bizimoduak osatzen dute historia "haundi" hori, eta horren jabe egitea interesgarri bezain beharrezko izan beharko lukeela deritzogu.

Historia oso honen gordailu dira artxiboak, nahiz elizetakoak, nahiz udaletxetakoak, ... Leitzako udaletxean 1475. urtez gerozko paperak daude eta altxor ikaragarria da benetan, hor dagoena. Kontu eta istorio asko ageri dira: herritarren arteko liskarrak, udalarekin zituzten aferrak, ezkontzetako hitzarmenak, istorra mozteko epeak, zergak, zenbait gairen salmenta-leku eta prezioak, ... Eta hauen artean daude udal ordenantzak ere. Hauexeri ekinen diegu oraingoan beraz, datu xume eta argigarri batzu plazaratuz.

Udal ordenantza hauetan herritarrek hainbat arlotan zituzten eginbeharrak eta betebeharra daude adierazita, hala nola herriko biztanleen heziketa, moralitatea, portaera, ... nolakoak izan behar ziren ageri da. Nolabait herriko legeak, arauak ziren.

1545. urtekoa da artxiboan dagoen udal ordenantzarik zaharrena. Baina gerora, beste batzu ere onartu zituzten, bestelako gai batzuentzat ere. 1622. urtean landa eta okindegietarako arauak ezarri zituzten, 1758.ean mendirako, 1824ean poliziaordenantzak, eta 1892, 1911,1916 eta 1917 urteetan udal ordenantzak onartu zituzten, azken hauekin liburuxka moduko bat argitaratu zutelarik.

1917. urteko ordenantzen ale batzu badaude artxiboan. Hauek ilbeltzaren 14.ean burututako batzarrean onartu zituzten udalean eta geroztik, urte bereko apirilaren 25.ean Gobernu Zibilak dekretu baten bidez. Norbaitek jakin nahi balu, ordenantza horiek aurrera atera zituzten korporaziokideak, Sebastian Gogorza alkate zelarik, Juan Alkoz, Tomas Gogorza, Martin Lizarraga, Migel Tomas Azpiroz, Tomas Telletxea, Migel Antonio Zestau, Tomas Arregi, eta Franzisko Zabaleta ziren zinegotzi eta idazkari berriz, Antonio Lasarte. Erabaki hura hartzerakoan "veintenakoak" eta "los contribuyentes" ere han ziren tartean.

Garai hartan ezarritako ordenantzak, 1917az ari gara hizketan, gaur egundik begiratuta parragarri izan daitezke batzuentzat, zaharkitutakoak.

Baina erne! Beste batzuentzat oraindik ere aplikagarri izan daitezke eta hori horrela izatea pozgarri ere, ez baitago ordenantza horiek indargabetzen dituen besterik oraingoz, alegia moralitatea, heziketa ona, portaera ... arautuko dituen ordenantza berririk. Beraz ...

Ordenantza hauetan ageri diren artikuluen adibide gisa baliagarri izan daitezke, esate baterako...

- Moralitateari zegokionez, maldizioak botatzea eta eskean ibiltzea galerazita zegoen eta eskazaleak gainera, herritik ateraraziko ziren.
- Erlijio pestei lotuta, jai egunetan lan egitea galerazita zegoen salbuespenak salbuespen.
- Iñauteritan, eguzkia sartzen zenetik hurrena atera arte, ez zegoen atxoatzerik, eta aurpegia estaltzea ere galerazita zegoen.
- Taberna eta ostatuetaz ari garela, hamabost urtetik beherakoei eta mozkorrei alkohola ematea galerazita zegoen. Hori bete ezean, isunik haundiena ezarriko zitzaielarik.
- Hezkuntzari lotutakotan berriz, seitik hamabi urte bitarteko haurrak eskolaratzea gurasoen ardura zen, bestela 5 pezetatako isuna jasoko zutelarik.
- Osasun gaietan berriz, txertatzekoak zeuden eta buruan ikusteko moduan gaitz nazkagarriak zituzten haurrak eskolan ez ziren onartuko. Bestalde gaixotasun kutsakorrak ezkutatzen zituen herritarrari isunik gogorrenak ezarriko zitzaizkion, hots 25 pezeta.

Arau edo ordenantza hauek ordea, XX. mende haserako garai hartan kokatu behar dira, alegia kontestualizatu egin behar dira, gizaldi hartako bizimodua ez baitzen orain daramagunaren ezta

antzekoa ere! Bakoitzak atera ditzala kontuak, gure aurrekoak nola bizi ziren!

Eta, hori horrela izanik, ez pentsa ordenantza horietan aipatzen diren isun horiek ahuntzaren gaberdiko eztula zirenik. Garai hartan, eguneko 10 ordu lan eginez, 4 pezeta irabazten baitzituzten langile hoberenek. Gainerakoak gutxiago. Eta gainera kontutan hartu behar da, soldata baten truke lanean aritzen zirenak ere ez zirela asko izaten, gehienak nekazalkotik bizi baitziren.

1917.eko ordenantza hauetatik aukeraketa bat egin dugu, denak hemen aitatzea luzeegi izanen bailitzateke eta guri berexienak iduritu zaizkigunak jarri ditugu. Gainera, bere-bere horretan ateratzea interesgarriago dela eritzi diogu, berezkotasunik gal ez dezaten eta garai hartako paperetan erabiltzen zuten erdal hizkuntzaren hiztegiaren adierazgarri.

Irakurketarekin "gozatu" eta zuzen eta zintzo ibili eta bizi.

ja! jai!!!

**BI ZINTZO**



**ORDENANZAS MUNICIPALES**
**de la M. N. y L. VILLA DE LEIZA**

ARTES GRÁFICAS, JOSÉ ALONSO 4
PAMPLONA—1917

# ORDENANZAS MUNICIPALES

DE LA

# M. N. y L. VILLA DE LEIZA

## TITULO PRIMERO

**Orden y buen gobierno**

### CAPÍTULO I

**Régimen administrativo**

ARTICULO 1.º El gobierno y la administración del municipio corresponden al M. I. Ayuntamiento.

ART. 2.º El Ayuntamiento funciona conforme a los derechos que la ley municipal le otorga y a los que le competen por la legislación privativa del antiguo Reino de Navarra, reconocidos en la ley paccionada de 16 de agosto de 1841.

### CAPITULO II

**Moralidad pública**

ART. 3.º Queda prohibido blasfemar, ni escarnecer con palabras o actos injuriosos las cosas sagradas y cuanto hace relación a Dios, a los Santos o a la Religión del Estado. Así mismo se prohiben las canciones, ademanes y cualquiera otro acto ofensivo al orden, a la moral y al decoro público.

ART. 4.º No se permite por concepto alguno la exhibición ni venta de libros, figuras, grabados o fotograbados representando objetos o escenas contrarias al pudor y a las buenas costumbres.

ART. 5.º Queda terminantemente prohibido establecer en la vía pública rifas o juegos de azar.

ART. 6.º Los que se encuentren ocupados en juegos prohibidos serán presos y entregados a los Tribunales de justicia para la imposición del castigo que corresponda con arreglo al Código penal.

ART. 7.º Quedan prohibidas las rifas y loterías que no se hallen autorizadas por las leyes o expresamente permitidas por la Superioridad para atender con sus productos a la beneficencia pública.

ART. 8.º Todo individuo a quien se encontrare en la vía pública, en algún establecimiento de bebidas o en cualquier otro sitio público, en tal estado de embriaguez que pueda producir desorden u ofrecer peligro para él mismo o para los concurrentes será detenido y arrestado hasta que vuelva a su estado natural, sin perjuicio de ponerle el oportuno correctivo o sufrir en otro caso la prisión subsidiaria correspondiente.

Los que reincidieren en esta falta, serán puestos a disposición de la Autoridad competente para que sean castigados con arreglo al Código penal.

ART. 9.º Queda prohibida la mendicidad en la vía pública y casa de la villa así como en el atrio y pórtico de la iglesia o en cualquier otro establecimiento público.

Los dependientes del municipio detendrán a los infractores, poniéndolos a disposición de la Autoridad, la que en cada caso adoptará las medidas que estime más convenientes.

ART. 10. El Alcalde podrá sin embargo autorizar para implorar la caridad pública a determinado número de pobres naturales de la villa, quienes a este efecto habrán de acreditar en el oportuno expediente, que ni por sí mismos, ni por las personas que deben prestarles alimentos, pueden allegar los recursos necesarios para la subsistencia. Los pobres autorizados llevarán a la vista un distintivo para justificar la autorización.

ART. 11. A los pobres transeuntes se les hará salir de la población después de socorridos convenientemente, para que continuen su marcha.

## CAPÍTULO III

### Fiestas religiosas

ART. 12. Se prohibe trabajar públicamente los días festivos, exceptuándose únicamente las tiendas que se dediquen a expender artículos de comer, beber y arder, las cuales podrán estar abiertas hasta las doce de la mañana en los días indicados, pero sin muestras, y cerrados los escaparates que den a la parte exterior.

ART. 13. Cuando por la índole de los trabajos o por cualquier otra causa se considere necesario continuarlos en los días festivos, deberá obtenerse permiso de la autoridad municipal, la cual no lo otorgará sin que preceda la licencia de la autoridad eclesiástica.

ART. 14. Las procesiones deberán seguir el curso previamente acordado por las autoridades municipal y eclesiástica y durante su desfile todos los concurrentes y espectadores deberán guardar el respeto debido.

Siempre que sea conducido el Santo Viático por las calles, los transeuntes le tributarán el respeto debido. Los conductores de carruajes, caballerías o de cualquier objeto voluminoso dejarán en el acto expedita la vía pública. Los individuos de la guardia municipal están en el deber de acompañar a S. D. M. al hallarla en su tránsito y de hacer cumplir lo anteriormente dispuesto.

ART. 15. El Ayuntamiento asistirá en corporación a las funciones y procesiones religiosas, a que por precepto o por voto especial está obligado a concurrir, ocupando la presidencia.

## CAPITULO IV

### Fiestas populares y espectáculos públicos

ART. 16. Quedan incluídos en este epígrafe los bailes a la antigua usanza, tal como se practican actualmente, las romerías y cuantas diversiones se permitan en la vía pública.

La celebración de dichas fiestas no podrá tener efecto sin obtener previamente la licencia del Alcalde, quien designará el sitio en que deban verificarse.

ART. 17. Queda terminantemente prohibido, a pretexto de la celebración de estas fiestas, como por cualquier otro motivo, el disparo de cohetes, petardos u otros fuegos artificiales, sin licencia expresa del Alcalde.

ART. 18. Siguiendo una costumbre inmemorial, todo espectáculo en la vía pública deberá cesar al toque de oraciones, a no mediar en circunstancias particulares licencia expresa de la autoridad municipal.

ART. 19. Durante los días de Carnaval, no se permitirá el uso de disfraces desde la puesta del sol.

No podrán usarse disfraces ni caretas en los templos ni en los campos, y se prohibe la careta a cualquiera persona, esté o no disfrazada, en las tabernas, cafés y demás establecimientos de esta clase, bajo la responsabilidad de sus dueños o encargados.

Se prohibe también en todas partes el uso de vestiduras de Ministros de la Religión y personas constituídas en clausura, de los trajes de funcionarios públicos y de los militares. Igualmente se prohibe presentarse en público con trajes indecentes y usar de palabras y acciones que ofendan al decoro y la moral.

De la propia manera se prohibe toda clase de insultos y amenazas, tanto a los que usen disfraces y caretas, como entre éstos y los que no vayan disfrazados.

Ninguna persona, esté o no disfrazada, podrá quitar a otra la careta ni obligarle a que se la quite, ni declarar a voces su nombre.

ART. 20. No deberá darse espectáculo alguno o celebrarse función de ninguna clase, sin que preceda el permiso de la autoridad competente, previa inspección facultativa, del local en que deba tener efecto, a fin de que estén convenientemente garantidas las seguridades, higiene y comodidad de los concurrentes.

ART. 21. La fiesta y diversiones organizadas o subvencionadas por el Ayuntamiento se celebrarán en la forma que éste determine.

ART. 22. Todo espectáculo público se celebrará en todo caso bajo la inmediata vigilancia de la autoridad y sus agentes, quienes estarán encargados de conservar el orden y de hacer respetar los derechos de los asistentes.

## CAPITULO V

### Establecimientos públicos

ART. 23. Se comprenden bajo esta denominación y a los efectos de este capítulo, los locales destinados a la venta de comidas y bebidas y en general todo establecimiento donde se reune el público accidentalmente, por motivo de recreo o diversión.

ART. 24. Todo establecimiento de este género deberá cerrarse precisamente para las nueve de la noche, desde el 15 de Septiembre hasta el 3 de Mayo, y a las diez de la noche en los restantes meses del año.

ART. 25. En todos estos establecimientos habrá suficiente luz desde el anochecer hasta que se cierren.

ART. 26. Después de cerrados dichos establecimientos no se permitirá en ellos a otras personas que los domiciliados en casa.

ART. 27. Los dueños de esta clase de establecimientos que consientan en ellos juegos de suerte o azar, serán puestos a disposición de los tribunales para su castigo.

ART. 28. Se prohibe absolutamente la expendición de bebidas después de las horas señaladas para la clausura.

ART. 29. Si por los concurentes a estos establecimientos se promoviese algún desorden o cuestión, que no pudieran acallar los dueños de los mismos, o si llegada la hora de cerrar, resistiesen aquéllos su salida, recurrirán para conseguirlo a los agentes de la Autoridad. De lo contrario, serán personalmente responsables de estas infracciones y castigados según la índole de la falta en que incurran.

ART. 30. Se prohibe terminantemente servir alcohólicos a los borrachos y a los niños menores de 15 años. Los taberneros que contraviniesen esta disposición, serán castigados con el máximun de multa.

## CAPITULO VI

### Orden en la vía pública

ART. 31. Se prohiben los juegos, diversiones, riñas o cualquiera faena u operaciones que produzcan molestias al vecindario y sean efectuados en la vía pública.

ART. 32. Se prohibe verter agua en la vía pública, depositar tierras, escombros y toda clase de objetos que perjudiquen o molesten a los transeuntes.

ART. 33. Se prohibe la colocación de puestos de venta en las calles sin licencia del Sr. Alcalde.

ART. 34. Se prohiben las rondas, músicas, canciones y voces estrepitosas que puedan perturbar el sueño y la tranquilidad del vecindario, de no mediar licencia de la Autoridad.

ART. 35. Se prohibe rasgar, arrancar o ensuciar los bandos, avisos y demás papeles oficiales que las Autoridades hiciesen fijar en los sitios públicos.

ART. 36. Todo vecino deberá tener especial cuidado en que las tejas y accesorios colocados en las ventanas y fachada de los edificios se hallen convenientemente asegurados, para evitar que ni aun en caso de un fuerte viento se desprendan y caigan a la vía pública.

ART. 37. Se prohibe el riego de macetas y plantas colocadas en los balcones y ventanas en forma que el agua caiga a la calle.

ART. 38. Queda prohibido sacudir alfombras, ropas ni objeto alguno desde los balcones, ventanas y plantas bajas de las casas después de las ocho de la mañana durante todo el año.

## CAPITULO VII

### Instrucción pública

ART. 39. Todos los vecinos están en el deber de procurar a sus hijos la instrucción primaria por lo menos.

ART. 40. Los padres, tutores o encargados cuidarán de que sus hijos y pupilos concurran a las escuelas desde la edad de seis a doce años por lo menos. Si amonestados por la Alcaldía por falta de cumplimiento de este precepto persistieran en su negligencia, serán castigados con la multa de cinco pesetas.

ART. 41. Los niños y niñas de la indicada edad que se encuentren en las calles públicas o en otros lugares del Municipio en completo abandono, lo mismo de día que de noche, serán recogidos por los dependientes o agentes de la Alcaldía para entregarlos precisa e inmediatamente a sus padres, tutores o encargados, tomando nota circunstanciada de los nombres y apellidos y domicilio de tales niños y de los referidos padres o tutores, y de las causas del abandono, para que la Alcaldía, dentro del círculo de sus atribuciones, aplique el correctivo que proceda y ponga en su caso el hecho en conocimiento del Gobernador civil o de los Tribunales de Justicia, para que exijan la responsabilidad a que haya lugar.

ART. 42. Llegada la edad del servicio militar, deberán acreditar los mozos saber leer y escribir por lo menos, sin cuyo requisito perderán el derecho a la subvención acordada por el Ayuntamiento. Este artículo entrará en vigor a los dos años de la promulgación de las presentes Ordenanzas.

## CAPITULO IV

### Vehículos y caballerías

Art. 57. Se prohibe que toda clase de vehículos y caballerías transiten por las vías de la población, si no es a una velocidad moderada.

Art. 58. Todos los vehículos y caballerías en su tránsito por las calles y caminos de la villa, deberán marchar por la derecha de los mismos en sentido de su dirección.

Art. 59. El dueño, encargado o conductor de carruajes de marcha ordinariamente rápida, tiene obligación de llevar dos faroles, uno a cada lado del conductor: los omnibus podrán llevar uno solo a la testera y se encenderán desde la hora de anochecer, con luz bastante para que puedan distinguirse a distancia.

Art. 60. Cuando se encuentren en una calle dos o más carruajes, cada uno tomará su derecha. Si el camino fuera estrecho y no pudieren pasar dos a la vez, retrocederá el que esté más próximo a la esquina o punto donde debe verificarse el cruce. Si el camino está en cuesta retrocederá el que suba.

Art. 61. Los coches y demás carruajes que hagan servicio público de transporte de viajeros por las carreteras, no podrán adelantarse unos a otros, sino cuando los que van delante se detengan.

Art. 62. Si por infringir lo que queda dispuesto en los artículos precedentes se produjera el atropello de otro carruaje con exposición de las personas que vayan dentro o de algún transeunte, el culpable será detenido por los agentes de la autoridad y se le impondrá la multa que le corresponda, según las circunstancias, sin perjuicio de la responsabilidad criminal que pudiera caberle.

Art. 63. Todo velocípedo que circule por las vías públicas de esta villa deberá ir provisto de bocina u otro aparato sonoro que advierta de su llegada a los transeuntes y del farol desde el anochecer.

Art. 64. En caso de aglomeración de personas, los ciclistas deberán echar pie a tierra y conducir los velocípedos a mano.

Art. 65. Queda prohibido a los conductores de toda clase de ganado maltratarlo, permitiéndose únicamente el uso moderado de la tralla u otro instrumento análogo.

## CAPITULO IV

### Enfermedades contagiosas y epidémicas

Art. 75. Siempre que ocurra un caso de las enfermedades consideradas como contagiosas (viruelas, tifus exantemático, fiebre tifoidea, difteria, escarlatina, sarampión, coqueluche, etc.) deberá ser puesto en conocimiento de la autoridad municipal con la mayor premura posible. La declaración de dichas enfermedades incumbe en primer lugar al médico, y en segundo al jefe de la familia a quien pertenezca el enfermo y a cualquier vecino que tuviera conocimiento del caso, bajo las responsabilidades a que puede dar lugar la ocultación.

Art. 76. La declaración comprenderá la casa donde resida el enfermo, naturaleza de la enfermedad y nombre de aquel. Esta declaración se hará por escrito y se remitirá a la Alcaldía. La declaración por parte del Médico deberá hacerse en el término de las 24 horas después de diagnosticada la enfermedad.

Art. 77. No se admitirá en las escuelas a los alumnos que no estén vacunados ni a los que tengan en la cabeza enfermedades repugnantes a la vista. Así mismo no se admitirá a los que hayan padecido o padezcan enfermedades infecciosas, hasta no haber transcurrido dos meses después de haber pasado la enfermedad.

Art. 78. La alcoba o cuarto donde muera un enfermo de mal reputado contagioso, se picará, blanqueará y desinfectará por cuenta del propietario, salvo el derecho que preceda para exigir del inquilino el importe del gasto causado.

Art. 79. No podrán lavarse las ropas de enfermos que hubiesen padecido enfermedades contagiosas sino en la parte del río destinada a este efecto o que designe la autoridad, desinfectadas previamente y de ningún modo en lavaderos públicos y de vecindario.

ART. 80. En caso de presentarse algún foco infeccioso, la Alcaldía tomará todas las medidas necesarias, incluso el aislamiento si lo creyere necesario.

ART. 81. Los cadáveres de las personas que hayan fallecido a consecuencia de una enfermedad transmisible, deberán ser conducidos inmediatamente al cementerio.

ART. 82. La conducción de cadáveres infecciosos será sin acompañamiento.

ART. 83. La declaración de las enfermedades contagiosas que se desarrollan en el ganado corresponderá al Veterinario, quien lo manifestará por escrito a la Alcaldía en el término de 24 horas de su aparición.

ART. 84. Se castigará con el máximun de multa a los vecinos que oculten una enfermedad contagiosa que se haya desarrollado en los animales domésticos de su propiedad.

ART. 85. Las caballerías, perros y otros animales que muriesen, serán enterrados en el lugar destinado al efecto fuera del casco de la población.

ART. 86. Las gallinas y animales de poco tamaño podrán ser enterrados donde sus propietarios lo crean conveniente, siempre que sea a una profundidad regular que impida los miasmas y los ponga fuera del alcance de perros y otros animales.

ART. 87. Serán denunciados ante la Alcaldía y castigados, los que arrojen dentro del casco de la población o sus inmediaciones restos de animales con grave perjuicio de la higiene e inminente peligro de propagación de enfermedades, muy particularmente entre las gallinas y ganado de cerda.

## TITULO SEXTO

### Penalidad

### CAPITULO UNICO

ART. 109. Toda persona, sin distinción de sexo y clase, residente en esta villa, quedará obligada a la puntual observancia de las presentes Ordenanzas.

ART. 110. Las infracciones de estas Ordenanzas serán castigadas, cuando en ellas no hubiere señalada otra, con la multa de 1 a 25 pesetas, imponiéndose además el resarcimiento del daño causado, si lo hubiere, y los gastos de peritos y expediente.

Si dos o más personas cometen una infracción, la multa será personal, y sólo mancomunadamente el resarcimiento de daños.

ART. 111. Si la gravedad de la falta lo requiere, el autor o autores serán entregados a los Tribunales ordinarios.

Los que no puedan pagar las multas por ser insolventes, a juicio de la autoridad que las imponga, sufrirán el arresto de un día por cada cinco pesetas.

ART. 112. Los padres y tutores son responsables de las faltas respectivamente cometidas por sus hijos o pupilos.

ART. 113. El Alcalde o quien haga sus veces, queda facultado para aplicar las reglas que abrazan estas Ordenanzas; para interpretar sus disposiciones y para publicar los bandos que estime oportuno.

ART. 114. Los agentes del Municipio quedan obligados a denunciar cuantas transgresiones observen, siendo responsables de no verificarlo.

ART. 115. Los denunciantes participarán de la tercera parte de las multas que se impongan por infracción a las presentes Ordenanzas.

Aprobadas en todas sus partes las presentes Ordenanzas por el Ayuntamiento, el día 14 de enero de mil novecientos diez y siete, fueron remitidas, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 76 de la Ley municipal, al M. I. Sr. Gobernador Civil de la provincia, siendo aprobadas por esta Superioridad según decreto de veinticinco de abril de mil novecientos diez y siete.

*Leiza 1.º de mayo de 1917.*

*El Alcalde,*

***Sebastián Gogorza.***

*El Secretario,*

***Antonio Lasarte.***

# ERRITO, OHITURAK eta... BESTEAK

Aurtengo Plazaolan zerbait idatzi nahi, zerbait idazteko beharra eta zein gai aukeratzea gertatu zait zailena, hasieran behinik behin. Nafarroan euskararekiko gertatzen ari direnak izan zitekeen. Zer esanik ez da falta. Herritarrok euskararekiko dugun jarrera ere izan zitekeen. Zer nolako erabilpen mugatu eta eskasa dugun eta horrekiko sentitzen dudana ere ager zitekeen.

Gaiaz aldatuz, egun, globalizazioaren inguruan eman beharreko hausnarketak tokia izan zezakeen. Edota, munduan, eta baita "gizarte txikitan" ere noski, kultur baloreen etenik gabeko galerak, erreflexio xumeak egiteko baliagarriak izan zitezkeen.

Politikaz, orokorraz eta bertagokoaz ere, saia nintekeen...

Asko eta asko izan litezke saiatzeko moduko gaiak, horixe baietz. Hala ere, egunerokotasunari helduz gai pare bati ekitea erabaki dut. Gai arruntak, egunerokoak, baina bizi garen gizartearen adierazgarri izan daitezkeenak. Adierazgarri direnak hobe esanda.

Bata, *jaunartzea edo "komunioak"*. Harritu al zarete? Honen inguruan gertatutakoak dira ni harritzen nautenak. Arlo ezberdinak jorra daitezke. Alde batetik fedearena eta honen inguruan, norbanakoak hartu beharreko konpromisoak eta egitekoak. Datu bat hartuz has gaitezke. Eskolan, jaun-hartze garaian hogeita lau (24) ume daude. Hauetatik ..... egin dute komunioa edo ospatu dute ospakizun hori. Datu hauek guztiek errealitateari erantzuten al diote? Fedearen errealitateari diot, ez egintzaren errealitateari noski. Ez dut uste. Hemen, lagunarteko mintzairan "konpromisu edo betebehar soziala"ri erantzuten dio gehien bat edo batez ere. Honekin batera egungo ezkontzak datozkit gogora. Nahiz elizaz egiten direnak, nahiz zibilez ospatzen direnak. Garai batean, hau guztia, ("artifizialidadeaz-itxurakeriaz" ari naiz, ez benetako sentimenduaz ari direnaz) gainditzen ari ginela iruditu zitzaigun askori. Bizitzeko beste era bat aukeratu genuenok, aukeratzearekin batera, orohar, errito hutsalak (sentimendurik gabekoak, alegia) desagertu ez, baina bai bere neurrian jartzen hasiko zirela (kopuruaz ari naiz) pentsatzen genuen. Baina bai zera! Hortxe kopuruak; 24 elizaz (2000.urtean), 5-6 zibilez (2001.urtean lehen urterdian). Eta udaletxean (sinboliko izan arren) egitatezko bikoteak, non zeremonia berezirik, gonbidaturik, oparirik ez dagoen, eta ez dut esan nahi honengatik denik, kopurua 4-5era jaisten da (orain artekoa, kontuan hartuz 1999an hasi zela). Hau guztia beste "elkartzeko moduak" aipatu gabe utziz. Zenbakiak aldakorrak izan daitezke, orain arte izan diren moduan eta aipaturiko elkarketa hiru moduak konparatzea ausart xamarra gerta daiteke,baina kasualitatea hutsa ote?



Aurreko ospakizunak (jaunartzeak) eta honek (ezkontzak), badute biek beste elementu bat amankomunean, eta hau ere gizarte berri honen adierazgarri; egitearen "ponposidadea" edo luxua azaldu nahia. Gero eta gonbidatu gehiago, gero eta janzkera bereziagoa eta garestiagoa, gero eta opari , diru eta muntaia gehiago. Mugak non ote dira? Anekdota moduan konta dezaket aurten komunioa egin duen ume batek, ia buka ezinezko opari zerrendaren ondoren laurehun mila pezeta (400.000 pezeta-2409 euro) jaso zituela, osaba-izebek, aiton-amonek,... emanda. Ba al dakigu hori interpretatzen? Umeak ulertzen al du? Edota zer nolako desioak berpizten ditugu umeengan horrelako jarrerekin? Pentsatu al

# Tiburtzio Donearen pestak

dugu inoiz hori guztietan? Eta ezkontzaren inguruan gertatzen direnak alde batera uzten ditut orain.

Esan nahi dudana inork ez dezala gaizki har. Are gutxiago, benetako sentimenduz ospatzen dituzten horiek, izan badirelako, noski. Helburua; "anekdota" (anekdota?) moduan gelditzen diren kontu guzti hauek, zer pentsa eman dezaten eta horren ondorioz egiten duguna konszientea , norberak nahi duelako alegia, izan dadila. Dena den, hau nik neuk ikusten, pentsatzen eta adierazten dudana da, nahiz eta gehienei ez inporta.

Pentsamendu arrunt hauetan bada bestea; ***futbola***, zorioneko futbol handiaren sukarra, alegia.

Denbora asko ez dela, Euskaldun askok Osasuna ekipoaren jaitsieraren arriskua zela eta, abertzaletasunez, sentimendu abertzale-nazional baten gerizpean jaso zituen bere elkartasunezko sentimenduak. Hedabideek oro har, zer-nolako "papera" jokatzen duten, oro har ere bai, kuestionaezina da. Hala ere gai honekiko areagotu da. Zergatik? Zertarako? Espainiar Ligan bigarren jokotaldera jaitsi ez, eta horrela "Hego Euskalerriko futbol taldeak" lehen mailan manten daitezen. Nik hementxe kokatuko nuke benetako Euskal Selekzioaren gaia. Edo gaiaren inguruan eman beharreko eztabaida edo debatea. Hau eta modu honetan, horrela, nik ulertzen ez dudan fenomenoa da. Jakin badakit, futbola konkretuki, "herria" (kolore eta ideologi ezberdinekoak) mugiarazten duen gizarte fenomeno handi eta zabala dela. Baina hori guztia engainotsua dela baita ere badakit. Gehienok kontrako iritzia izan arren, "masa-engainu" hori gustatzen ez zaidala aldarrikatu nahi dut. Ez zait batere gustatzen giza-erabilpen hori, baina are gutxiago, abertzaletasunez jantzi nahi denean.



Nik uste dut, zinez, gizarte hau aldatu behar dela, hobetzeko bidean jarri behar dela, euskal gizarte berri bat eraiki behar dela. Baina, jakin ez badakit ere, susmatzen dut eliteko kirolaren fenomenoa, oro har eta futbola neurri handienean, eragozpen handiena izanen dela jende multzo handia bide horretan jartzeko. Futbola garai batean, ideologiaren, euskalduntasunaren "etsaiak" erabiltzen zuen tresna zen. Hala sinesten zuen gehiengo batek. Egun, nik berdintsu pentsatzen dut; botereak ederki erabiltzen duen tresna da, baina gizarte kopuru handi batek babesa ematen dio, nahiz eskuin, nahiz ezker. Egungo futbola adierazten duen hitz nagusia, beste batzuren artean noski, dirua da, miloiak dira, sal-erosketa da, pertsonen sal-erosketak. Eta horren ondorioz, eta ez naiz batere tragikoa, pertsona askoren ilusio, bizia, sentimenduen sal-erosketak. Ez al gara ohartzen? Edota berdin zaigu?... Bakarren batek erretxindua ote nagoen galdetuko du, eta futbolak duen eragina kontuan hartuz baietz esanen diot. Nire problema dela esanen dute gehienek, eta hala da baina arazoa denona dela pentsatzen dut.

Hala ere, itxura denez, Bilbo Atletikek azkeneko asanbladan, beste erabaki batzuren artean, emakumeek palkora "sar daitezkeela" onartu du. Arazo bat gutxiago bertako zaintzaileentzat, emakumeek indarrez palkora sartu nahi dutenentzat. Hortxe aurrerapena.

Hau guztia nola bukatu pentsatzen ari nintzela, ea non egunkarietako (eta EGUNKARIAn ere bai) azalean argazki handi bat eta honi dagokion testua ikus daitekeen; Lotinak bere urtebetetzea zela eta (edo ez dakit zer...), berrehun lagun gonbidatzen ditu Iruñeko hotel handi batean. Lotsaemangarria, ene ustez, batez ere, ia berrogeita hamar egun greban hainbeste langile egon diren garai honetan ikusita. Dena baloreen arabera. Eta ahalmenaren arabera, noski.

Konforme ez egon arren, aitor ezazue, "mundu", gizarte desorekatu (desekilibratu) batean bizi garela. Ez al da hala? Hauek adibideak besterik ez dira.



**PIPERMIN**

# LEITZA, BASABURUKO (MENOR) ERRIETAKO BAT

Adiskide zintzo ta egoki zaitudan irakurle, biotzetik, Agur`erdi diozut.

Leitzeko erriak, Aurrera elkarteak... urtero oi duten bezela erritarrei, arrotzei, Tiburtzio Donearen oroimenez irakurri al ditzaten ateratzen zaien aldizkari "Plazaola" dezu irakurtzera zoazena...... Eta ni igaz bezelaxe zer edo beste zerbait idaztera ausartu naizenez nere buruko sapaia astindu eta jorratzen ari naizela burura gai au etorri zait: Leitze Erria.

Irakurle gure erriaz izanen da gaurko idatz, iskribu jorraldia, baita ere irakurleari jakiñen gaiñean jarriz nere idtza lanen zear, noski, irakurle asko, aunitz izanen direla ni idaztera noana beraiek, lehenago beste txosten baten irakurri al izatea. Baina nik nere lantxoa, nere espa burutu egin nai...

Liburuetatik -Leitzez- nik irakurritako eta ulertutakoen ariora VII. gizaldian ba omen zuten Leitzarandarrek gaztelu-dorreetxe aundi bat, goi mallakoa bera, agitz bizkorra eta sendoa, erbestetik etorri aal zittezkeen etsai, arrotzei, alainean eutsi eta uxatu aal izateraňekoa.

Baiñan gaur egunean gaztelu-dorre izandako onen aztarnik ez, erreautsik ezta ere, iñonen, ezerren ikusteko edo sumarrazioko liokenik. Ots, adi, nonbait irakurri dut, orain dela gizaldi bat gutxi asko, arrastoak ba omen ziren eta leku, paraje, eremuaren izena "Santa Maria la Candelaria" omen zuen. Segi dezadan gazteludorrearekin. Ots, erne: XIV gizaldi. 1.318 urtegarrenean Urroz´tar zegoen buruzagi. 1.328 urtegarrenean Araitz´tar Fernandok, zaindu saria 10 libra zuen eta urteko 50 anega gari. Onen ondoren Reta´tar Juan da. 1.339 urtegarrenean Jainkoangan aren anima geldittu zen. Geroz izan zen Yaniz´tar Gil. Gerozkoan dorrearen zaindariek auek dittuzu: Agerre´tar Peio, 1.364 urtegarrenean-II EVREUX, Carlos erregea agintzen zegoelarik.

Emendik 5 urteetara Leitzeko Oderiz´tar Martin, zurgiñek, ekin zion Jasokuntzari eta garai artako, erriak 30 libra gastatu zituen.1.371 urtegarreneko aldian Urbia´tar Adan alkate zegoen eta 8 libra eta 40 anega gari gastua egin zen. Eta geroztik 1.392 urtegarren arte Juana erregiña zalarik, buruzagi auek egon ziren zaindari: Eraso´tar Lope Ibañez eta Ax´tar García Perez au Narbarte´ko Jauna.

Aurrera segi dezadan, izan, izanak gai bi: bata, XIV. gizaldi erditik antziñera gazteludorrea gaitzajeaz jota zegoen eta nolabait garaiko agintariek zutik eta aalik obekien euki izatera nai zuten, baiñan zaarren gaitzak -oneri ere baiaskotan barrenean izaten eta ari ari azkenean liburuak diotenez 1.400 urtegarrenean zearo, arras jausia aurkitzen zen.. Bigarren gaia 1.392 jausi aurretik, Lizarrako errian ospe aundia zuen mazonero bat, Martín Perez izenez, berak langiletaz erabiltzen zituen mutillekin ekarriarazi omen zittuzten.

Mazonero izaten omen zen, gaur egun etxe egillearen antzekoa, baiñan deus aundirik ez zuen egiñen zer dala-ta andik 8 urteetara -leen esan bezala- arras eroria zegoelakoz. Ala eta guztiz, 1.410 urtegarrenean, Leonor erregiñak, "Carlos III el Noble"ren emazteak, aldi artan zegoen Merino´ri Errenteri errira joateko esan zion Mazoneroren billa.

Orduko alkateei izenez edo izengoitiz Merino otsein zitzaien eta agintza izugarria izaten omen zuten:ots,erriko dirua zaindu, dirua nola eta ala banatu,baita ere erritarrek juzkatzeko eskubidea,bere alde,bere gain zeukan.

Iskribuan ari naizen aldetik,zerbait esan bear izan ezkero gaur egungo yendeek esanen genioke: Dictador zela.

Mazonero bere mutillekin etorri zen Errenterira.Gazteludorreari jasokuntzaren lanak egin zittuzten eta egia lanik ez ziran onik aterako zergatik, berriz ere yasokuntzari ekiteko 1.429 urtegarrenean Zizurkillen bizi zen Lope, mazonerogintzan maisu ospetsua, bere mutillekin ekarriarazi omen zuten. Au ola iza-

nik, liburuak deus aundirik ez du esaten baiñan dudarik ez dago aldi ontan Zizurkilgo maisuak ez ote zuen ezer onik egin, zergatik 1.450 urtegarrenean beste ekin aldi bat izaten du. Aldi ontan ere ematen du Zizurkilgo maisua lanean aritu zela... Urteak aurrera dijoaz eta 1.460/1.465 Merino jauna, Eraso´ko Martín izendatzen dute.

Txostenak dionez eta ala ulertuz gizaseme au izanen zen gazteludorreak izan zuen azkeneko buruzagia.Berriz ere, liburuaren esanetan 1.471. urtean Gipuzkoarrek, gazteludorreari ekitten diote eta kañonen munizioen erauntsiaz, berriz ere, gazteludorrea txiki-txiki egiñik biurtzen da. Leitzarandarrei, gaur eguneko -Leitzar eta Aresoar esanen nuke, gazteludorretxeari gertatutakoarekin eriotza bera da eta akabo esan bear garai bateko euskaldunek esaten zuten gisan eta nola ez, guk ere bai.

Atzeko gizaldietan, gazteludorreak erritarrei emanen zieten -zalantza barik-berekoitasuna, aberastasuna eta estalpe babesa gerraldietan etsaiengandik zetozkien erasoagatik. Gazteludorretan erriko yendeak, nola zaarrek, emakumeek, aurrek izanen zuten babesa, nola ukatu? Eta dakigunez babesa edozein arlotan izaten duen eta ematen duen bizipoza, atsedena, itzjarioa, bizi naia, une aietan iñolaz ere neurtu eziñezkoa...

## Leitza Erriaren sorkuntza

Naparroan -historia jakitun-idazle aundi bi izan dittugu, beste besteen artean eta auek dira: Yanguas eta Miranda eta bestea Don Julio Altadill. Jakintsu auen ustetan 1.192. urtean, bizilagunen artean Leitze erriaren sorkuntza, dagokio liburuak diotenez, urte ontan VI. Santxo Jakintsuak Fuero bitartez, Leitzen bizi ziren gizon-emakumeei zerga edo kontribuzioa paratu zizkien eta nola gizon ala emakume 4 sueldo ordaindu bearra izaten zuten. Gaur egun sueldoren itza eta moneda galduak izan arren gu adiñez aurrera goazenok Leitzen eta inguruko errietan sueldoa ezagutu izan degu, baita sueldo erabilli izan ere. Yakiñe guk ezagutu eta eskuetan erabillitako sueldo aiek gaur egun baliorik ez du. Nere adimena zuzen baldin badago sueldo ark 25 centimo balio zuen. Segi dezadan aurrera, delako errege ark gizon-emakume guztientzat urteko 4 sueldo pabearra paratu zien, alargunentzako sueldo bat. Liburuak dionez -aziendari buruz berriz- zenbat urtabeetako legortetan fueroaren esanetan, larreetako janariak murriztuak, txetxetuak aurkitzen ziren aldietan, aziendalariek larreak, janariaz, naikoan, oparo ugari eta guri guri ziren larreetara eramatera libre zuten eta gaiñera zergarik ordaindu barik. Baita ere esan bear dizuet garai aietan gure larreetan geien bazkatzen zuen azienda, zerrie, urdea izaten zela... Azienda au, bordariek dakizutenez, azi eta ugaritu errexako azienda da. Izurritzeari buruz (gaitza) alegia, agiriek ez dakar deus ere. Gaur egun gure bordetan eta larreetan ain egoki eta etekin emankorra degun beiei aziendataz liburuak deus ez du esaten. Eta ni idazten ari naizen aldetik zerbait esan bearrekotan au esanen nuke: aldi aietan gure eremuetan (800 urte direla) beiek, beikiek, azienda ezikaitzak izanen zittezkela. XII. gizaldian beiki au, txostenean, iskribuan ez agertzeko, alegia... Ala eta guztiz, XVIII.gizaldi onen aseran, beste txosten batek dionez, Leitzarandarrek ba omen zittuztela 6000 bei,700 zaldi,160 beor eta aunitz zerri.

## Gaztelatarrak, Gipuzkoarrekin lotuta-Naparroaren aurka

XV gizaldian,1.421. urtean Gaztelar eta Gipuzkoar, Leitzarandarrekin gatazka aundi bat izan zuten eta Leitzarandarren etxeak suerreketan, kiskali eta arras ondatuak utzi...

1.444 urtegarrenean, berriz ere, gerratean, Gipuzkoarrak Gaztelatarrekin lotuta zeudelarik, gatazka aundi baten ondorioz, Leitze eta Areso zearo arras, suntsiturik utzi zittuzten ezer balio zunikan gabe utzi zittuztela liburuak dionez. Gertakari oni buruz esan bear dizuet: Naparroa eta Gaztelaren arteko gatazka zela, Gaztela eta Gipuzkoa elkarrengan lotuta zeudelako.

Zorigaiztoko gerratearen ardatza, giarrea, muña, errien arteko mugarrien konpondu eziñezko gertakaria izan zen. Erri bien eremuetako mugarriak, alegia. Itxura denez Leitzeuneko eta Gipuzkoaren arteko eremuetako mugarriek sortuarazi zuten (zorigaiztoko-berriz esanda) gerrate ura. Gaur egun senideenganako daukagun begiramenekin -neretzat- sineskaitza izanen litzateke garai artan izan zen mingarrizko gertakari ura.

Jakin ezazu, irakurle, aldi artan XV. gizaldian Areso eta Leitza, Leitzaran baillara osatzen zutela. Geroxeago, urteetan Leitzarango erri biek zuten alkarrenganako lotura eten zen, autsi egin zen.

Leen esan bezala, Yanguas ta Miranda eta Julio Altadill idazleen esanetan, auen idatz txostenek diote, gertakari auek izanik bertako bizilagunek arras txunditurik, zearo lur jota, burubegiek makur eta negarrez geldittu zirela...

Antziñearuntz ekiteko, aalmen ezan, erriko bizilagunek geldittu omen ziren. Ala ikusita izanikan Leitzarandarrek batzarreratu eta geroz erabaki bat artu zuten, gizon-emakume eta aurrak artu eta sorlekutik alde egitera... Liburuko iskribuak nora joan ziren ez du esaten baiñan pentsatzekoa da, Napar errietara joko zutela.

Aldi artan Naparroan, Bianako Karlos errege zegoen eta Karlosek atsegabezko egoera mingarri eta unkigarri ura ikusirik 30 urteetan zerga ordaintzeke utzi zituen eta ats, arnasa, eman zien Leitzarandar guztiei. Gero iristen ziren errietako bizilagunengana erregengandik oar bat jaso zuten etorri berriei trato eta bizi egoki bat emateko, goi agindua beraiekin zutela izanik.

Baita ere esan bear dizuet atzerritik etorritako yendeek beraien aziendekin etorri zirela eta aalzaneko larretan bazkatzeko eskubide osoarekin. Leitzaran edo Leitzegune -aldi artan- Leitze eta Areso, erri biek osatzen zuten; orain geuk edo geiengoek baillara esaten diogun modura.

Baiñan ailegatu zen egun bat, idaztxostenak, zergatikan deus ere ez du esaten, bien artean zuten ezkontza, lotura, eten egin zen. Nik irakurri dittudan liburu biek diote, 1.770. urtean izan zela lotura orren auste ori.

Irakurle: bear bada orain arte idatzi dizkizudanak, aspergarriak izan, izanen zaizkizula, baiñan aldi artako Leitzarandarren historia izakio eta nik, zuengana paratu egin nai...

## LEITZARANGO BURNIAROAREN ISTORI MURRITZA...

Irakurle: ots, Leitzari buruz nik irakurri dittudan liburu biek, ez dakar deus aundirik 1.500-1.750 urtek arte egin zutenik. Ala eta guztiz, Leitze errian adiskide min dittudan eskolaz ornitutako lagun biek eman dizkidaten oargari batzuetan eta emen ikusten denez Leitzeguneko lur eremuetako gizakume zailduak izaki "larre motxean azi eta eziak" bazuten lana non egin. Adiskide bietako batek, eman dizkiten irakur bideetan azaltzen da: Burniolek ogi bide.

Leenengo malla Urto'ri, bigarrena Ibero'ri, irugarren Errezume'ri, laugarren Sarasiain'i eta bostgarren Astibia'ri (etxebikoak, Olaberria). Murriz barre aiteko da: agiriak ez dakar zenbat burni kintal ateratzen zuten, Errikoetxeari ordaintzen zitzaioneko saria baizik, eta ario ortara, leen mallako langintzan Urto'ri dagokio... Ots, beste adiskideak eman didan txostenekin atal aundi bat idatzirik osatuko nuke; sinistek ere, lan du zenbat burniol murgiltzen ziren burnia sortzeko eta ala berean bertako gizakumeari eguneroko ogia irabazi aal izateko. Kontuan izan ezazue XIII. gizaldiko agiri batek aipatzen du burniolaren sorkuntzaz, ots, jarrai dezadan orain XVIII gizaldira.

Gizaldi onen azkeneko 30 urteetan, liburuetako txostenen esanetan, 1.770garrenetik antziñera, Leitzarrek lana non egin bazuten. Leitzek 5 burnioleen emaitzak beregab bazittun. Leen idatzi dizuedan txostenak, burniolen emaitzarik ez zuen, oraingo onetan bai: 4000 kintal burni ateratzen omen zittuzten eta geien geienak itsasontziak egiñarazteko omen ziren, burnia eta iltzek, alegia, orain emaitza au zenbat egunetako lanaren sarie ez du paratzen.

Pasaiko ontzi egillentzako, batipat, noski: kai au izanen baizuten espaibarik erosoena burnioleen ugazabek. Lentxexeogan esan dizuet artxiboan irakurri eta miaketan erruz, erruz aritu eta ari diren Leitzar bi auek eman dizkidaten agirietan irakurri diteke Leitzeuneko eremuetako burniolen asera, zenbait errekatan, XIV gizaldiko urteetan burniolek lanean aritu izan zirela eta auen artean Errezumekoa, Urto, Eskibar, Astibia eta Urdiñolakoa. Auek dittuzu artxiboak miatu eta saiatu ondoren nere adiskideak eman didaten bitxikeria.

Irakurle: ezin utziko zaitut Martinete izena zuen tresna aintzagarri esan gabe.

# Tiburtzio Donearen pestak

Tresnamallu onen bidez kobrea eta beste metalezko gai batzuk menderatuak, apainduak, gertuak beste zenbait lan egin aal izateko gai zen.

Emengo burniolen bukaerari emateko zein izan zen goiburu, jakin aal izateko ibilli giñezke baten iritziak edo beste batzuenak jaso eta azalduaz. Ala ta guztiz, nik neronek badut nerea eta auxe dezu, betidanik, gure kaskoetan jaso eta dagoen esaera zorrotz, egoki eta sankoia esanen dizuet: arrai aundiak, txikia jaten omen duela esan oi da eta emen, gure eremuetan orixe gertatu zitzaigun. Bizkaiko laba garaian, sonatuak, sortu zireneko aldian eta onen emaitzak, ondoren, apurka, apurka gure burniolak itzaliarazi zituen gure lurreetan, hainbeste gizaldietan, eguneroko ogia jan aal izateko eta familiak bizi-pozez aal izateko izan zittuzten burniolak eta: aintza, aintza gure arbaso izan zire guziei.

Gizaldi ontan, XVIII alegia, Leitzek eguntegi ola eta bazuen, bizi ziren garai aietako erritarrei eskatzen zizkieten era guztietako jantzi-oialak eta beste eratakoak egiñarazteko...

Leitze aldi artan-nork uka-aalmen aundi eta baikoiaren jabea zen...

## ARKITEKTURA

Leenbizikoz asi nedin Erriko etxearekin, XVIII. Urtean egiña izan zen Lekuona'tar Ignazio'ren aalmen-jakitzaz. Ormak, paretak arrizkoak dittu. Lekuona jauna nongoa zen, aalmen jakintzaz txostenetan ez dator. XX. Gizaldian eta 1.917garrenean Tolosako Izagirre'tar Gillermoren maisunepean areagotu egin zuten erritarrek.

XIX giladi erditsuan osasun etxearen jabea zen; gizaldi barean 1.847garrenean eskola ere bazuen. Eskolan arduratzen zirenek 4.000 sueldo saria zuten, (txostenak ez du esaten urteko edo...).

Jakintza edo kultur maillarako esan bear dut Arrizko begi bakarreko 3 zubi badittula: Errezuma + Mikelenea + Kandeletxe.

Erria: eliza bikaiñ bat, erriaren gañean ainbesteko erretaulak aldare buruan. Eliza egiten Noiz asi ziren ez dut arrastorik aurkitu. Orain nik eskuetan dedan liburuak, elizari buruz, beste zenbait aipagarri badakar, baiño ni egiz latiñetik gurea den Euskerara itzultzeko ez naiz gai izan, idazteko...

Aaztuta ezin utzi dezaket, Santakruzko basaeliza, ermita, alegia. Ederra da eta gaur egunerako egokitua. Eliz ospakizun eder ederrik egiten dire, arraiopolatu.

## JOLAS DANTZA

Leitzeko "Ingurutxo" dantza mota ganako idazsolasa zer esanen nik, Leitzar beraiek ez dakitenik, baiñan erbesteei, arrotzei esanen diet arras, zearo, unkigarri, egoki ta bikaiñaren bikaiñ dala ikusteko eta guzi guziz txoramiñazteko egi, egi diozut, zaitudan atzerritar miña.

## GEOGRAFIA

Geografiari buruz ez dakitenentzat, nik esan bear, Leitzek bere lurreen mugak auek direla: Iparraldetik, Goizueta sarmantakia den erri kozkorra; Sorkaltetik, Basaburu aundi eta Ezkurra; bata mendiko azienden pazkaleku ederren jabe, bestea berriz aizkolari eta basamutillen sorterrie, nork ukatu?. Egoaldetik, Larraun, azienda mota geienetako sorleku. Sarkaldetik, mendebaldetik, alegia, Areso ta berastegi, biak ere baserri, borda, Aziendapazkoen barroti egoki ta ugariekin. Leitze errie, erria den bezela auzo auek osatzen dute: Erasote, Gorriztaran, Arkiskil, Erreka, Mayetalde; auzo auetan geien, Geientxonetan bordariek bizi dire. Auzoak eta bordak sakabanaturik aurkitzen dire bataz bestera eta egokiera onean, baiñan azken urte auetan zenbat auzoetan "TXALET"en antzeko etxe batzuk egiñek badira. Kale-errie auzo auek osatzen dute: Elbarren, Elgoien, San Miguel, Patxi Arrazola, Amazabal eta Manuel Lasarte, bertsolari onen omenez eta maitasunez egiña eta etxez ugaritzen doa; azkeneko 3 auzo auen sorkuntzak, ikusi aundia dute Sarrio papeleraren sorkuntzarekin. Dudik ez dut paratzen, leitzen, beste lantokien eragiñez ere etxeak egiñak izanen direla baiñan aundi aundien eragiña da Patxi Arrazolak -GOYAN BEGO- asera eman zion lantegiari...

Adiskideok; eldu den urte arte, jainkoak onez.

**DEMETRIO'K**

# EUSKARA BERRIZ ARAZOA, HARA!

Euskara gure herrian zer den eta, ezin hasiko gara orain azaltzen sakon-sakonean eta sustraietatik. Izanez ere, nahi duen guziak, gutxi-asko beti ere, badakike zer den eta zer ez den. Eta gainera, bestalde, luze joko luke, hagitz, zehatz-mehatz eta xehe-xehe azaltzea euskararen historia. Dena den, eta balikebale, baten bati ahaztu balitzaio ere, gogorarazi nahi diogu gure betidaniko mintzoa dela; hori bederenik! Ba, ez pentsa, batzuentzat, ezta hori ere: arrotz, arrotz-nahi eta gure gobernuko ordezkari politikoentzat ez. Ezta! Horientzat arazo-bide eta politika baino ez! Zergatik, ordea? *Hizkuntzari gorrotoa? Zeureari, zeure lurraldekoari, zerorren zaharren mintzoari, gorrotoa? Bai, to! No! Ezin daiteke! Ezetz!*

Orduan, zer gertatzen ote da gure agintari haundi-maundi-mando horiek geren sustrai, zain, odol, mintzo, abizen, inguru,...zein diren ohartzen ez, edo hobeki esan, ikusi nahi ez, eta geren nortasunaren eta izatearen beraren ezaugarririk edo osagairik inportanteena dugun hori, esan nahi baita, mintzoa, desagerrarazi nahi izateko?

Ba al zenekien alemana, ingelesa eta urrutiko horiek baino gutxiago balio duela gure gobernuko artaburuentzat? Oraingo lege berrien arabera, konparaziora, Leitzan edo Eratsunen enfermera edo erizain izateko ia-ia berdin balio dute ingelesak eta euskarak: eta Iruñean frantsesak edo, oposizioetan 2 puntuko balioa izanen du; eta euskarak zero, ZERO PATATERO! *Oioiuioioi!!!* Hutsen hurrena. Eta haurra edo, aitona edo, gaixotzen bada? Izan ere, euskaldunok gaixotzeko eskubidea benik izanen dugu, edo zer? Ingeles ikastaroa egitera gure aitona-amonak? Edota haurrekin ere espainolez ari beharko dugu, nahitaez, aurrerantzean, medikutara eta, joateko?. Hori da kopeta, hori! Edo muturra edo larrua edo, ez jakin ba, zer esan ere! Lehengo lepotik burua, betiko horiek. Ez dute begi-bistakoa dena ere ikusi nahi. Gurekin, hots, bertako herria eta kulturarekin, bukatu nahi dute: Europan den hizkuntzarik zaharrena eta estimatuena lurperatu. *Ño, erne eta burutsuak dira, gero!*

Ulertzerik ez dago, inola ere: izanez ere, ez al dute, bada, agintariek dagokien lurraldearen kultura eta aberastasunen alde lan egin behar? Ez al dute bertako hizkuntza zaindu eta errespetatu behar? Mundua mundu denetik, menderen mendetan, eta bazter guztietan (?) egundaino behinik behin, hala izandu da. Zergatik ez du, bada, horrela izan behar, hemen ere? Gu ez al gara, ba, beste gainerako pertsonak bezalakoak? Ez al gara, ba, demokrazian bizi? *Egon hadi horretan! Pentsatzea ere! Hi haiz gixaxoa, hi!*

Demokraziaren izenean demokratiko (omen) diren estatu orok, baita Espainiak eta Frantziak ere, jakina, nola ez, bestela? Giza Eskubideen Aldarrikapen edo deklarazio Unibertsalarekin bat egin zuten: esan nahi baita, berena egin zuten konforme (omen) zeudelako hor aitatzen denarekin, eta defendatu eta aldarrikatu nahi (omen) zutelako. Guri ordea, GEAUan onartutako eskubideak, gizaki guzientzat oinarrizko diratekeenak, ukatu nahi zaizkigu aspaldidanik estatu kolonialista eta zapaltzaileek erabili ohi zituzten argumentuak erabilita: hots, nazio bakarra, handia eta askea. *Ei, Eguzkira begira!!! Harrapa ezak-n hori! Planetako, mundu guziko, gizon-emakume guziendako ontzat, eta nahi eta nahi ez errespetatu beharreko eskubide edo deretxo demokratikoak, etxean berean, euskaldunentzat ez!*

Aitatutako deretxo internazionaletan honakoa esaten da, gutxi-asko: *gizaki orok hainbat eskubide badu sortzen den momentu beretik, eta oinarrizko edo inportanteenetako bat bere ama hizkuntzan errespetatua eta hezia izatekoa da, hots, bere aita-amen hizkuntzan bizi ahal izatekoa. Horrenbestez eta ondorioz, legearen aurrean, gizaki guziak berdinak gara; inolako sexu, kolore, edo hizkuntzagatiko bazterkeria eta marjinaziorik gabe: onartu beharrak mundu honetan, justizia egonen bada, behinik behin.* Orduan, nork ulertu eta azal liezaguke zer arraio dela eta guk gerok, euskaldunok, ez dugun eskubide hori izateko egokierarik? *Zergatik, Europako estatuek eta, onartu arren, gainerako leku guzietan eskubide denak hemen ez du eskubide izan behar?*

# Tiburtzio Donearen pestak

Orduan, zer? Pertsona guziek ez al dute ba, zuzenbidez eta legez onarturik egon arren, berdin tratatuak izateko eskubidea? Leitzar batek bere etxe atarian, berak ordaindutako diruari esker, eta ondorioz, bere zerbitzurako martxan (omen) dagoen administrazioaren aurrean, mila kilometrora bizi eta oporretan dabilen erdaldun arrotz batek baino eskubide gutxiago izan behar al du? esate baterako, Osasun Etxera joaten denean, hango langileekin hitz egiteko? Edo Iruñeko ospitalean, lan egiteko zein zaindua izateko, alemanez jakitea euskaraz jakitea baino garrantzitsuagoa izan behar al du, dekretuaz eta legez? Ba nafarroako gobernukoentzat, nonbait, bai. Horixe bakarra falta genuen euskaldunok! *Harrigarria! Negargarria! Ikaragarria! Lotsagarria! Eta baita beste hamaika harria ere! Zinez; hitzik ez.*

Erdaldunei edo, esan behar beren etxean, kanpotar franko dela eta, algeriarrak eta, badira pilaka zenbait lekutan: ba, horixe, ea ba, espainolez ari beharrean hebraieraz edo portugesez ari behar dutela, derrigor, medikutan eta. Ene! Hemen berean ere, gurera etorrita, kexu izaten dira hamaika! Han, nonahi, auskalo zer gertatuko litzatekeen gure egoeran baleude? Eskubideak ederki ulertzen dituzte batzuek, baina eskubidedunak berak bakarrak balira bezala, ordea. Nirea bai, baina, besteena ez? *Bai polita! Besteren txangan ere jakin egin behar jartzen.*

Arestian aitatukoaren haritik, hots, lege-justizien hariari tira eginda, eta pentsa litekeen bezala, nazioarte mailan, pertsona guzien eskubideak defenditze eta babeste aldera, estatu guzietako konstituzioetan ( moderno eta aurreratuetan???) agintzen zaie bertako politikoei lurralde osoan diren hizkuntzen eta kulturen alde lan egiteko: demokratiko izatekotan, hori derrigorrean onartu beharra baita. Nazioen altxor edo tesorotzat hartzen baitira hizkuntzak oro, den-den-denak: lehengo zaharrek, hots, gure arbasoek, historian zehar ikasia, bizitua, erakutsia eta maitatua errespetatu beharrekoa da, nahi eta nahi ez, nor izatez gerotan, behinik behin: bere burua (historia) ezagutu eta maite izateko gauza ez dena izan al daiteke nor, inor? *Nekez.*

Guri dagokigunez, estatu espainolaz ari garela ere, gogoz kontra izanagatik hala behar, behin demokrazia (?) ezarrita, 78ko konstituzioan argi geratu ondoren zenbait lurraldek eskubide historikoak zituztela, eta errespetatu beharrak zirela, Nafarroari ere onartu zitzaizkion. Bada, Nafarroako Foruen Hobekuntza Legea onartu zen 83. urtean, eta demokratiko izenez bataiatu zutenez gero, ezinbestean, halaxe dio bere 9. artikuluan: *Nafarroan bi hizkuntza mintzatzen dira, eta ohore handia da guretzat, jakina, eta biak gure nortasunaren sinbolo eta ezaugarri dira: horrela bada, guri dagokigu euskara ere zaindu, babestu eta errespetatzea.* Espainiako konstituzioan ere halaxe dio: *Espainian lekuren batean hizkuntza bat baino gehiago balira, botereari eta erakundeei dagokie horien alde lan egitea eta beren normalizazioa eta jendearen erabiltzeko eskubidea bultzatzea.* Arraionea! *Bai progre eta aurreratuak, aizu! Hitza zein legea, bete egin behar, ordea, deus izanen badira!*

Aitatutako lege horiek ez dira askoren gustukoak baina, agoantatu egin behar: ah zer erremedioa! Oraingoz horien-beren mende gauzkate eta. Hala ere, deigarriena eta lotsaemangarriena ustezko demokraten jarrera eta jokamoldea da: beren legeen mende egon gaitezen nahi dute, eta derrigorrean behartzen: eta gainera, beren legeren batek (ez ahaztu Europan eta, ongi gelditzeko eta itxurak egiteko onartzen dituztela lege horiek hemen (?) , gehienetan) eskubide edo sasi-eskubideren bat aitortzen badigu, onartu eta errespetatu gabe uzten dute. Nola liteke, ordea? Legea berek egin, berek inposatu, berek indarrean paratu, eta berberek urratu? Bete gabe nork utziko, eta berberek? *Hau marka; adiskide karka!*

Aurreratze aldera ikus dezagun bidegabekeria horren beste adibide bat: SOS, SOSak. Espainolek nahiz frantsesek, konparazio baterako, zergak ordainduz gero eta, aseguraturik dauzkate beren kultura, irakaskuntza eta beste. Arestian esan bezala agintarien eginbeharra, betebeharra, obligazioa baita. Horretarako ordaintzen dira, hain zuzen ere, pagabeharrak: alegia, ordaintzen dira agintariek diru hori ongi erabil dezaten eta herriak, darabilen hizkuntzan jakina, hainbat zerbitzu eta, eskura ditzan. Besteak beste: eskola, medikua, unibertsitatea...

Hori horrela ez izatez gero, nork ordaindu-ko luke deus? Ba, hemen, nonbait, beste lekue-

tan ez bezala, zergak, paga-beharrak, ordainduagatik ere, ez duzu eskubiderik zeure izaera errespetatu eta zeure kultura eta abarrak bizi daitezen. Gure lurraldean legeak hala aginduagatik ere, bada, hala eta guziz ere, Nafarroan zerbitzuetan eta, hori ez da betetzen. Eta, ezta beteko ere: azken boladan ikusten ari garenez gero. Erreparatu, bestela, aurtengo nafarroako gobernuko ekimenei eta asmoei. *Etxekalte alenak!*

Kontuak kontu, legeak lege, konstituzioak konstituzio, eta esanak esan, Nafarroako Gobernua (baina ez nafar-euskaldunena), Espainian den egoeraz baliaturik eta aspaldiskoan darabilten lan-moldeari eutsiz, dekretua dekretuaren gainean ari zaigu: euskara eta euskaldunak soberan egoki eta traba egiten, nonbait. Eta garbiketa lanari ekin diote. Gogorki eta gogotik ekin ere: euskal kutsukoa den guzia ezdeus bihurtzearren, euskara arautzen duen 86. urteko lege eskas eta kaxkarra, Euskararen Legeaz ezagutzen dena, oraindik murritzagoa izan dadin eta euskaldunak eskubiderik, bat bera ere gabe gera gaitezen dekretu eta lege berriak atera eta atera. Oraindainoko pizarra kendu eta ezabatu eta zanpatu eta kaskaildu. Euskara galarazi, trabak paratu, euskal nortasuna erabat gal dadin, eta mendez mende gertatu den bezala, jendeak bere izaera bera ere galdu eta aurrera egin dezan bere aurrekoen kultura bazterrera botarik (ez ahaztu, gero, euskara zenbat herritan galdu den joan deneko 200 edo urte honetan: gero eta herri gutxiagotan da bertakoen hizkuntza nagusia: erabat arrotz bihurraraziz gero, etxean berean...) *Ongi ari dira, hagitz ongi ere! Eleee...Ole!*

Nafarroan gertatzen ari zaiguna inork ez luke onartu behar. Egun oraindik ere, aurki, bakarren batek ez du ulertu nahiko, baina. Posible ote da? Historian zehar gertatu diren injustiziak eta azaltzen ari garena bere interesetako zein mesederako ontzat hartu, eta gure herriari zenbat zor zaion herria den aldetik onartu ez? *Ba ote? Bo, bo, ixo! Nola ba? Makina bat bai!* Dena dela, horrek bueltarik ez du. Bakoitzari berea, haren legea. Hala da eta kitto! Bidegabekeriak eta injustiziak ez dira inoiz atzentzen, ezta desagertzen ere, harik eta onartu, errespetatu, aintzat hartu eta zorrak kitatu arte. Bitartean beti izaten da norbait bere herriaren eskubideen alde borroka egiteko prest. Baita, bere inguruko guziek, etsiak hartu eta, paso egiten badute ere. Egun edo bihar ageriko da. Seguru baino seguruago. Dudarik ez izan.

Hala, bada, azken hogei urte honetan, hizkuntza berpizten eta arnas berritzen ari zitzaigun. Mendetako galera eta injustizien aurrean kontent egon gintezkeen. Ikastola eta euskaltegiei esker, eta batez ere, hor aitatu bezala, herriaren gogo eta nahiari esker suspertzen, arnas berritzen ariki! Jendearen mentalitatea ere, berdintsu: aldatzen! Elkar errespetatzen hasiak ginen nafar guziak. Nafarroa izandakoari lotzen ari zitzaion, aspaldiko partez. Eta biziberritze horrek leherrarazi ditu, zalantzarik ez dena, betiko eskuindarrak: sufrikario izugarria izaki, ezin etsia eta gorrotoa paratu dute balore nagusi, lema: aski da (?) haien betiko lege bakarra. Horrexegatik, hain zuzen ere, ekin diote berriz, atzera, euskararen aurkako gurutzadari edo borrokari. Bai baitakite herriari hitza emanez gero, haien aurka azalduko dela.

Alabaina, eskubideez, injustiziaz eta, ari garelarik, guk gerok ere badukegu urraketa horretan ardurarik: inork eta deusek galarazten ez digun arren, gero eta maizago ikus baitezakegu euskaldun peto-petoak erdarari, erabatean, arras emanak nola bizi diren: hala, bertakoa bertako bertakoek galarazten diete bertakoei. Urrutiko intxaurrak hamalau, bertara joan eta lau. Ez ahaztu, gero, arestian esanak! Eta, hori gutxi bailitzan, horietako zenbaiti inork ez die irabaziko, Nafarroa Oinez eta antzeko festetara joaten. *Ederra da, gero! Markakoa, alajainkoa! Hipokresiari stop!!!*

Beste hamaika adibide gehiago ere para daitezke, lasai aski, jende ustelaz, baina, tira, norberaren giza eskubideen erantzule eta arduradun nagusiak horiek ez direnez gero, agintariak baizik, zer eginen zaio? Ba, horixe, maketozaleek nahi dutena egin dezatela, berdin, horixe eginen dute. Bestela errepara iezaiozu Leitzako jendeari nonahi, noiznahi, eta atera kontuak. Zailena egina geneukalakoan gu, eta orain zer? Nori leporatu erdara barra-barra barreiaturik sumatzerakoan baita euskaldunzahar eta alfabetatuen artean ere? Gerok beste inork baino erru handiagoa, inondik ere. Euskaldun epel-zepel-ergel bat aski dozena bat

euskaldun espainolez aritzeko. *Ene! Kanpo-eder eder asko. Joder asko! Ohartuko balira, sikiera! Eta zer egin gainerakoan?*

Agintariez ari garela, berriz, errespeta gaitzatela gerenari eutsi nahi diogunak, eta haien eskubide eta lege demokratikoak denontzat izan daitezela eskubide. Edo zer arraio, ez al gara, bada, gerok ere besteak adinakoak? Edo, zer krixtina? Hemengoak izateagatik barkazio eske hasi behar al dugu, atzenean? Eta gurasoen nortasunari uko egin? Eta hemengo, etxeko, ama-hizkuntzan aritzeari utzi? Eta kanpotik ekarria gerena egin? Eta garenari uko egin? Eta geren buruaz lotsatu? Eta erdarari eman? Eta? Eta? Eta? Guk zer kulpa dugu hemen jaio izana? Euskaldun jaio izana? Inork ba al du, ba, jaio aurretik izanen dena erabakitzeko egokierarik? Mundura sortu eta bertan izatea beste errurik ez badugu, zergatik jokatu behar dugu auzokoek eta ingurukoek ez bezala? Konparazio baterako, Errioxan bertan jaio eta gazteleraz hazitako inori eskatzen al zaio bere aita-amen hizkuntzari uko egitea? Edo exijitzen al zaio, bortxan, hizkuntza arrotz batean aritzea? Edo ikastea? Edo dena delakoa? Eta guri zer? Beti bezala, historia guzian bezala, gutxiago bagina bezala... egurra? *Hara, bakea eta demokrazia! Denontzako gainera! Zeinen ederki! Hori bai leloa, leloentzako leloa!*

Eta bukatze aldera, penak bazterrera bota, eta esan dezagun bizirik gaudela, eta, segitu ere, nahi behintzat, nahi genukeela. Gure agintariak eta justiziagileak badaudeke beren lekuetan, baina ez dezatela pentsa lo harrapatuko gaituztenik: erne egonen baikara. Beharko, biziko bagara. Aizu, portzierto, eta zuk ba al zenekien otsailaz geroztik euskararen aurkako lege eta erabaki erauntsi hau dela eta, bilerak eta ekintzak egin direla Leitzan berean? Ba, bai, eta gainera jendeak aspaldi ez bezala erantzun du: eta bilerak franko jendetsuak izandu dira gehienak. Baina ez hori bakarrik, gizarteko alor eta kolore askotako jendea elkartu da, eta ekintza franko ere egin dira: mani, idatzi, txartel, festa...

Halarik ere, ez pentsa aurrerantzean lana eta arrazoirik faltako denik bilerak eta lana egiteko. Ez horixe! Gero eta arazo gehiago izanen ditugu, aurki. **Hala, heldu den hiletik aurrera ere, berriz atzera, bilerak deituko dira eta zu zerori ere, etorri nahi baduzu, ongi etorria izanen zara.** Bo, hobeki esan, gaur gero, konfiantza pixkitto bat ere izanen dugu eta: etor hadi, anima hadi, euskarari eustea geure esku baitago! **Hurrengo hilabetetik aurrera erne eginen diren bileretarako deialdiekin!**

*Stop! Aski duk hi! Udan gaudela hi.*

*Bo, barka baina...*

Egun hauetan biñipin, festetan eta, liberti gaitezen eta ongi pasatu. Baina, argi ibili! ez ahaztu heure esku dagoela, denaren gainetik, euskarari eustea! Denen eskubidea dena, denena den dena dun-duk-da dena da. Ez al da hala? Mintza, ba.

Sarri arte, lagun!

**LEITZAR BAT**

# ADIERAZPEN ASKATASUNA

Printzipio unibertsalak eta gizakiaren eskubideak hizpide bihurtzen direnean ahoa betetzen zaigu berehala. Izan ere, hitz potoloak dira edo, hobeki esanda, ideia potoloak. Hala ere, Leitzan "adierazpen askatasuna" aldarrikatu behar dugula esateko, ez dugu oso urrutira joan behar. Egia esan, ez dugu inora joan behar, Leitzan bertan adierazpen askatasunari ere mugak jarri zaizkiolako eta pentsatzen zutena adierazi nahi izan duten herritar askok, esaterako, isunak edo multak jaso dituztelako.

Seguraski gehienok badugu horren berri, baina oraindik horren jakitun ez den inor gelditzen baldin bada, labur-labur azalduko diogu. Azkeneko bi urteotan Leitzan egindako zenbait kontzentrazio baketsuren ondoren bertan parte hartu duten herritar askori (baita bertan ez zeudenei ere!) 50.000 eta 500.000 pezeta bitarteko isun edo multa-oharra iritsi zaie. Batzuk dagoeneko ordainduta daude (60.000 pta) eta besteak errekurrituta.

Kasurik deigarriena iazko ekainean gertatu zen: guardia zibilaren mehatxupean eta haien armek eta bortxak inposatutako egoeran, guardia zibilarekin berarekin adostutako martxa egin ondoren, 15 pertsonari salaketa bana iritsi zitzaien. Alde batetik, ez zitzaion inori identifikaziorik eskatu; bestetik, salaketa gezurretan oinarritua zegoen. Pentsa, egun horretan Leitzan ez zegoen pertsona batek ere jaso du kontzentrazio hori dela-eta isuna!

Baina zer da okerrena? Gure herrian bertan, beste herritar batzuen giza eskubideak defendatzeko eta laguntzeko, guardia zibil armatuen kontrolpean eta mehatxupean ibili behar izatea, nola eta binaka, herriko espaloietatik, guardia zibilak aurrean eta atzean. Gainera, nahi izan zutenean martxa geldituarazi eta bertan behera utziarazi zuten. Gero etorriko zaizkigu adierazpen askatasuna badela esatera.

Hau adibide bat besterik ez da, gordin samarra izan arren. Baina gehiago ere badira. Gogoan izanen dugu denok Amazabalen alderdi politiko legal baten hauteskundetako propaganda kentzen guardia zibilen patrola bideoz harrapatu zuteneko hura (ETBn ikusi zen, besteetan ez). Eta zerrenda dezente luzatu liteke.

Diskurtso ofizialak komunikabide publiko eta pribatu gehien-gehienetan erabateko oihartzuna eta espazioa duen arren, beste era bateko adierazpen guztiak desagerrarazi nahi dituzte. Presoenak, adibidez, ez dira nonbait giza eskubideak izanen. Eta Leitzan ezin da horren defentsa publikoa egin. Gainera, nor etorriko hori ukatzera, eta herritar gehienen gogoz kontra bertan dagoen indar armatu atzerritarra, guardia zibila.

Gauza bat azpimarratzea komeni da, nolanahi ere. Isunak edo multak zigor ekonomikoa dira, baina helburua politikoa da, zalantzarik gabe. Lortu nahi dutena begibistakoa da: jendea etxean gelditu dadila eta ez dadila kalera atera protesta egitera. Errepresioak forma ugari har ditzake eta ekonomikoa da horietako bat, sakela astintzea. Baina horri ere aurre egin beharko zaio eta, beste guztietan bezala, nola egin ikasi beharko dugu. Garrantzitsuena da gure herrian pentsatzen dugunaren eta ideia ezberdinen alde adierazteko askatasuna eta aukera ez galtzea, eta horri eutsi egin behar zaio. Horretan amore emanez gero, gero eta hurbilago egonen gara zenbaitek amesten duten neofrankismo horretatik.

Beraz, bukatzeko, adierazpen askatasunaren murrizketa hau salatzeaz gainera, orain arteko bidetik jarraitzera animatu nahi zaituztegu. Hau da, Leitzan adierazpen askatasunari eutsi behar zaio eta, isunak gora isunak behera, justiziaren eta askatasunaren defentsa egiten jarraitu beharko dugu, baita kalean ere. Gure herrian gaudelako eta horretarako eskubidea badugulako.

**KALTETUTAKO ZENBAIT HERRITAR**

# LEITZA BIZIRIK!

Herri baten bizitasuna neurtzeko termometrorik ez da oraindik asmatu. Hala ere, badaude bizitasun horren norainokoa erakusten diguten datu batzuk. Horietako bat, ez bakarra, herrian antolatzen diren kultur ekintza eta era guztietako ekitaldi publikoen zerrenda da. Horixe da, hain zuzen ere, lantxo honetan bildu nahi izan duguna: urte oso batean Leitzan antolatu diren ekitaldien zerrenda. "Ekitaldi" hitz horren baitan oso tankera ezberdineko ekintzak bildu ditugu: ikastaroak, ospakizunak, kirol saioak, hitzaldiak, musika emanaldiak... Jakina, zerrenda honetan guzti-guztiak ez daude. Seguru asko batzuk sartu gabe gelditu zaizkigu, baina ahal izan dugun guztia sartzeko ahalegina egin dugu.

Zerrenda osatzeko Ttipi-Ttapa erabili dugu, kalean ikusi ditugun kartelak, hainbat jenderi galdetu diogu... Gureganaino iritsi direnak behintzat sartu ditugu. Azkenerako zerrenda luze samarra atera da eta hori pozgarria da, izan ere, herrian mugimendua badela erakusten baitu. Bada, hala ere, "Leitzen ez da deus itten" esaten duenik. Guri behintzat uste okerra dela iruditzen zaigu, lan dezente egiten dela pentsatzen dugulako, eta espero dugu lantxo honek uste oker hori zuzentzen lagunduko duela.

Nolanahi ere, askozaz gehiago egin litekeela ere garbi dago. Herriari bizirik eusteko, gainera, beharrezkoa da. Menua zabala da oso, denontzat bada hemen. Beraz, animo! Parte har dezagun antolatzen diren gauzetan eta, bide batez, antolatzen ere lagundu dezagun.

---

Hauxe duzue bildu dugun zerrenda. 2000.eko ekainaren bukaeratik 2001.eko ekainaren bukaera arte egindakoak jaso ditugu. Jarduerarekin batera antolatzailea eta data ere bildu ditugu (hutsuneren bat ere egonen da, informazio hori zehazterik izan ez dugun kasuetan). Logika edo orden pixka bat emateko bost ataletan banatu ditugu:

1.- Ikastaroak

2.- Hitzaldiak, proiekzioak, mahai-inguruak

3.- Kirola

4.- Kultura, musika, bestelakoak

5.- Ospakizunak, pestak

## IKASTAROAK

| JARDUERA | ANTOLATZAILEA | DATA |
|---|---|---|
| Masaje ikastaroa | Prebentzio Zerbitzua eta Gazte Asanblada | Uztailak 1 |
| Keramika | Udala | Udazkena. |
| Lore lehorren inguruko ikastaroa | Udala | Udazkena |
| Argazkigintza ikastaroa | Mendibil Mendi Taldea | Azaroa |
| Ipuingintza ikastaroa. | Euskara Zerbitzua | Azaroa |
| Nork bere burua makilatzeko ikastaroa | Izar-Berri elkartea | Ilbeltza |
| "Pertsonaren garapena lantzen" | Guraso elkarteak | Otsaila-martxoa |
| Joskintza ikastaroa | Izar-berri elkartea | Otsaila-apirila |
| Antzerkigintza ikastaroa gazteentzat | Prebentzio Zerbitzua | Apirila |
| Aerobic ikastaroa | Guraso Elkartea | Ikasturte osoa |
| Txalaparta ikastaroa | | Ikasturte osoa |
| Ehoziri lanak ikastaroa | Liñu-Putzu | Ikasturte osoa |
| Euskara ikastaroak | IKA Euskaltegia | Ikasturte osoa |
| Musika eskola | Aralar Musika Eskola | Ikasturte osoa |

## HITZALDIAK, PROIEKZIOAK, MAHAI-INGURUAK

| JARDUERA | ANTOLATZAILEA | DATA |
|---|---|---|
| "Ameriketan barna" hitzaldia. I. Kanpion | Mendibil Mendi Taldea | Urriak 27 |
| "Osasun fisiko eta mentala" hitzaldia | | Urria |
| "Ikasi euroa erabiltzen" hitzaldia | Jubilatuen Elkartea | Azaroak 8 |
| "Lizarra-Garazi" mahai-ingurua | Leitzako Lizarra-Garazi | Azaroak 10 |
| "Nekazaritza Ekologikoa" hitzaldia | EHNE | Azaroak 10 |
| "Gazteak Leitzan" mahai ingurua | Marmari euskara taldea | Azaroak 18 |
| "Historia de una pancarta" liburuaren aurkezpena. | Aurrera Elkartea | Azaroak 21 |
| "Jostailu egokiak nola aukeratu" hitzaldia | Guraso Elkartea eta Prebentzio Zerbitzua | Azaroak 28 |
| "Euskal Herriko Eguraldia" hitzaldia. Pello Zabala eta Joxe Landa. | UEMA-Euskara Zerbitzua | Abenduak 13 |
| "Klimaren aldaketa" hitzaldia. Kepa San Martin | UEMA-Euskara Zerbitzua | Abenduak 14 |
| "Mendiko eskia eta Mendibil taldearen irteerak" diapositiba emanaldia | Mendibil Mendi Taldea | Ilbeltzak 4 |
| "Emakumearen osasuna eta dieta" hitzaldia | Izar-Berri Elkartea | Ilbeltzak 18 |
| "Euskal Hezkuntza Sistema Nazionala: humanitateen dekretua... " hitzaldia | Guraso Elkartea | Martxoak 6 |

| | | |
|---|---|---|
| Mahai-ingurua: Askagintza, Haika, Alkoholiko anonimoak | Institutuko ikasleak | Martxoak 9 |
| Drogen inguruko eztabaida gazteekin | Prebentzio Zerbitzua | Martxoak 17 |
| "Euskararen sendabelarrak" hitzaldia. Koldo Zuazo. | Euskara Zerbitzua | Martxoak 20 |
| Euskararen inguruko mahai-ingurua herriko jendearekin | Euskara Batzordea eta herriko hainbat talde | Apirilak 6 |
| "Feminismoa Euskal Herrian" hitzaldia Kizkitza Gil de San Vicente | Egizan | Maiatzak 18 |
| Garapen pertsonalari buruzko hitzaldiak. | Eskolako eta Institutuko Guraso Elkarteak eta Prebentzio Zerbitzua | Otsaila-apirila |
| "Bake konferentziaren aurkezpena" | Elkarri | Apirila |
| Menopausiari buruzko hitzaldiak | Gizarte Zerbitzua eta Prebentzio Zerbitzua | Irailak 12, 19, 26 |
| "Kontsumo kritikoa" hitzaldia | Prebentzio Zerbitzua eta Guraso Elkartea | Abenduak 12 |
| "Zaintzaileak zaintzen" hitzaldia | Gizarte Zerbitzua eta Prebentzio Zerbitzua | Azaroak 3, 10, 17 |

## KIROLA

| JARDUERA | ANTOLATZAILEA | DATA |
|---|---|---|
| Eskolen arteko txirrindula lasterketa | Aizan K.E. | Umeen eguna |
| Txirrindulari "junior"en lasterketa | Aizan K.E. | Abuztua |
| Kaskagogorren pentatloia | | Iraila |
| Bardeetara mendi irteera | Mendibil Mendi Taldea | Iraila |
| Sta Engrazia-Belagoa mendi irteera | Mendibil Mendi Taldea | Urria |
| Izagara mendi irteera | Mendibil Mendi Taldea | Azaroa |
| Hiru Erregeen Mahaira mendi irteera | Mendibil Mendi Taldea | Abendua |
| Altzegi-Urepelera mendi irteera | Mendibil Mendi Taldea | Ilbeltza |
| Frontenis txapelketa | Aurrera Elkartea | Ilbeltza-martxoa |
| Sara-Zugarramurdira mendi irteera | Mendibil Mendi Taldea | Otsaila |
| Atxeritora mendi irteera | Mendibil Mendi Taldea | Martxoa |
| Krosa | Aurrera Elkartea | Apirilak 8 |
| Ergako Trinitatera mendi irteera | Mendibil Mendi Taldea | Apirila |
| Plazako pilota txapelketa | Aurrera Elkartea | Apirila-maiatza-ekaina |
| Ur-kirolen asteburua: canyoning, rafting, erreka jaitsiera | Mendibil Mendi Taldea | Ekainak 30 – Uztailak 1 |
| Pilota eskolaren jarduera | Pilota Eskola. Aurrera | Ikasturte osoa |
| Aurrera futbol taldeen jarduera | Futbol Taldea. Aurrera | Ikasturte osoa |
| Koadrillen arteko futbito txapelketa | Aurrera Elkartea | Udaberria |

## KULTURA, MUSIKA, BESTELAKOAK

| JARDUERA | ANTOLATZAILEA | DATA |
|---|---|---|
| Sexualitateari buruzko antzerkia | Prebentzio Zerbitzua eta Gazte Asanblada | Ekainak 28 |
| Henna tailerra | Prebentzio Zerbitzua eta Gazte Asanblada | Ekainak 29 |
| Orbela taldearen emanaldia | Nafarroako Gobernua | Uztailak 22 |
| Joxan Goikoetxea-Txomin Artola Kantaldia | Nafarroako Gobernua | Uztailak 29 |
| Asketaren kontzertua | Kultur Taldea | Urriak 28 |
| Jon Bergaretxeren kantaldia | UEMA. Euskara Zerbitzua | Urriak 31 |
| Karaokea umeentzat | Kultur Taldea | Azaroak 11 |
| Kontzertua Torrean. "Galizia", Ukraniako folk taldea. | Torrea Elkartea | Azaroak 24 |
| Talo eta gaztain jatea, txiste kontalariarekin. | Torrea Elkartea | Abenduak 2 |
| Berrizko abesbatza | Asketa abesbatza | Abenduak 2 |
| Saharara bidaia | Saharar Herriarekin Elkartasuna taldea | Abenduaren 4tik 9ra |
| "Aralar kantari": Herriko jendea kantari | Aralar musika eskola | Abenduak 22 |
| Kontzertua Torrean: Buitraker | Torrea Elkartea | Abenduak 22 |
| Antzerki emanaldia: "Bere emaztea kapela batekin nahasi zuen gizona" | Kultur taldea | Abenduak23 |
| Bilbora irteera: erakustazoka, parkea... | Guraso Elkartea | Abenduak 29 |
| Umeentzako aisialdi tailerrak eguberrietan | Euskara Zerbitzua | Abendua-ilbeltza |
| Argazki lehiaketa | Mendibil Mendi Taldea | Abendua-ilbeltza |
| Euskararen alde alkateek deitutako manifestaziorako autobusak | Herriko hainbat talde | Otsailak 24 |
| Saharako umeak ekartzeko kanpaina | Saharar Herriarekin Elkartasuna taldea | Martxoa-apirila |
| Kontzertua Torren. Ekintza | Torrea Elkartea | Martxoak 2 |
| Xabierraldian parte hartzeko autobusa | Parrokia | Martxoak 10 |
| Nafarroako Bertsolari txapelketako finalerdia | Bertsozaleen Elkartea | Martxoak 18 |
| Euskararen aldeko kotxe karabana | Herriko hainbat talde | Martxoak 22 |
| Euskararen aldeko manifestazioa Leitzan | Herriko hainbat talde | Martxoak 23 |
| Sara-Bermeo-Leitza "elkar ezagutza" ekimena. Asteburu osoko programazioa | Kultur Taldea eta Euskara Zerbitzua | Martxoak 24-25 |
| Korrika txikia | Eskola | Apirilak 6 |
| Korrika | AEK | Apirilak 6 |
| Truk txapelketa | Aurrera Elkartea | Udaberria |
| Aberri Eguna | Udala | Apirilak 15 |
| Liburuaren eguna: merkatuko liburu-erakusketa | Kultur taldea eta Liburutegia | Apirilak 20 |

| | | |
|---|---|---|
| Aralar eta Sinenomine abesbatzak | Asketa | Maiatzak 13 |
| Marmari aldizkariaren 2 ale | Marmari euskara taldea | Abendua - Ekaina |
| Dixi Jazz Band-en kontzertua | Kultur Taldea | Maiatzak 18 |
| Asketa Ttikiren kontzertua | Kultur Taldea | Maiatzak 19 |
| Herri Pesta: dantzariak, erraldoiak, Asketa, Zikiro jatea... | Kultur Taldea | Maiatzak 20 |
| "Kontinenteen sakontasunera bidaia". M.M. Elosegi eta A. Olano. Diapositiba emanaldia | Kultur taldea | Maiatzak 22 |
| Pilota eskolako ikasleentzat entrenamendua pilotari profesionalekin | Kultur taldea | Maiatzak 23 |
| "Herritik basora, pausoka" diapositiba emanaldia. Pako Zufiaur | Kultur taldea | Maiatzak 24 |
| "Hirurak" Zirko Ttipia taldearen antzeslana | Kultur taldea | Maiatzak 25 |
| "Trabenakuloa" kafe antzerkia | Kultur taldea | Maiatzak 25 |
| Umeentzat mendi irteera Iguzkizko Muñoara | Mendibil Mendi taldea | Maiatzak 26 |
| Koadrillen arteko jokoak | Kultur taldea | Maiatzak 26 |
| "Roki Pikatxon" filmaren aurkezpena | Filmaren Egileak eta Kultur taldea | Maiatzak 26-27 |
| Afaria eta Jarauta 69 txaranga | Kultur taldea | Maiatzak 26 |
| XXI. eskulangileen erakusketa | Kultur taldea | Maiatzak 27 |
| Musika eskolaren emanaldia | Musika Eskola | Ekainak 2 |
| Asteburuko zine emanaldiak | Zine taldea | Azaroa-apirila |
| Iganderoko txistularien saioa plazan | Txistulari taldea | Urte osoa |
| Lehen Hezkuntzako ikasleentzat jarduerak: xakea, pilota, buztina, patinak, dantza... | Guraso Elkartea | Ikasturte osoa |
| Leitzako dantza taldea: emanaldiak, entsaioak | Dantza taldea | Uda |

## OSPAKIZUNAK, PESTAK

| JARDUERA | ANTOLATZAILEA | DATA |
|---|---|---|
| Olentzeroa | Aurrera Elkartea | Abenduak 24 |
| Joaleak jotzea | Aurrera Elkartea | Ilbeltzak 4 |
| Kabalgata | Aurrera Elkartea | Ilbeltzak 5 |
| Errege bezperako afaria | Amnistiaren Aldeko Batzordeak | Ilbeltzak 5 |
| Inauteriak | Udala, Kultur Taldea eta Aurrera Elkartea | Ilbeltza |
| San Juan bezperako afaria | Udala, Kultur Taldea eta Aurrera Elkartea | Ekainak 23 |
| Umeen eguna | Gurasoak eta Aurrera Elkartea | Abuztua |
| Herriko pestak | Udala eta Aurrera Elkartea | Abuztua |

XABIER PREGUNTEGI DUDAGOITIA

# ANTZARA JOKOA ETA BESTERIK

Orain dela 32 urte, etorri zitzaidan Leitzara Donostiako udalaren "Goizaldi" folklore-taldeko arduraduna. Hiru helburu zekazkien:

1.- Bertan ikusi ingurutxoa.

2.- Antzara-jokoan gora-berak ikasi.

3.- Bitxikeri bat herriko zaharrenari galdetu.

Ingurutxoa, beraiek lehendik dantzatzen ikasia zeukaten, Aresoarteko Brijida Sarasolak erakutsita. Ikusi zuten Leitzan nola dantzatzen zen. Nota eta argazkiak hartu ondoren, Etxe-berrira joan ginen. Han erakutsi ziguten ondoren ikusiko duzuen gastu zerrenda, orain dela 81 urte antzara jokoan egindakoak, eta nola ordaindu ziren adierazten du. Jokuetako kapitaina gisa ibili zen Juan Azpiroz Baraibar-ek idatzia dago, oso idazketa dotoreakin. Nahiz gazteleraz egon, aurki, zu eta ni baino askoz ere euskaldunagoa izanen zen. Bere arazoa zen titulu unibertsitario bat lortzeko gazteleraz ikasi behar. Uste dut topografo karrera lortu zuela. Leitzan bada hori dakinik. Garai hartan derigorrezkoa zen gaztelera titulu unibertsitarioak lortzeko. Orain ingelesa dagoan bezela, garai hartan gaztelera zegoen hizkera nagusitzat hartua, eta oraingo textuak ingelesez "apaintzen" diren bezela, orduan gaztelanieraz egiten zen. Itzul gaitezen arira. Kutxa berean aurkitu ziguten ezpata giseko bat, kapitainaz egin zuenak erabili zuena. Etxeberriko amonak, oso ongi ezagutzen zituen neska-mutilen eta zaldien janzkerak. Zehazki deskribatu zizkigun apaindurak. Norbaitek jakin nahi badu berak esandakoak, hor ondoan diztea nik hartutako notak. Eta azkenik hirugarren gaiaz arituko naiz.

Praxku Erreroan-gena joan ginen. Ingurutxoz eta antzara jokoz mintzatu ondoren, bat-batean donostiarrak lira antzeko musika-tresna txiki bat atera zuen poltsikotik. Bi eskuen artean ezpañetan jarririk eta metalezko lamina bat behatzakin bibratuz, ahoan laguntzaz soñu berezi bat ateratzen zuen. Gaur egungo zenbait musika-laguntzaile bezela ere erabiltzen da. Praxku Erreroak hura ikusi bezain laster:

- Musu gitarra!!, esan zuen.

- Beraz, hau Leitzan jotzen zen?

- Ez jo bakarrik, baita dantzatu ere.

- Baina, nola dantzatu zitekeen horren soinu bajoakin?

- Bi gauzengatik: bat, soñu zaletasune zen, eozin soñu zela eta eozin instrumentu zela. Eta bestea neska mutil mordoxka ankutsik edo espartziñekin, bate soñuik atera gabe, dantzatzen zuela. Musugitarran soñue bajoa izanangatik, etzuen dantzatzeko deusen problemik izaten.

Goizaldiko arduradunak esan bezala, 1969-ko urtean apunte hauek hartu zituen Leitzan. Donostian nonbait hidatziak egonen dira, baina Leitzan ere nonbait hidatziak gelditzea on izan liteke.

**JOXE**

Relación de géneros adquiridos para el juego de ansarones

| | | Pts | Cts |
|---|---|---|---|
| Vino y licores | | 100 | 00 |
| Azúcar, canela y huevos para hacer piper-opill | | 22 | 00 |
| Comida para dueños de 10 caballos en Araquiñ-deguia | | 50 | 00 |
| Alubia y verdura | | 17 | 00 |
| Chocolate, bizcochos y azucarillos | | 32 | 25 |
| Cuatro docenas y media de huevos | | 15 | 00 |
| Melocotones y huva | | 21 | 00 |
| 8 latas de pimientos y 6 de tomate | | 12 | 40 |
| 3 ansarones | | 135 | 00 |
| 17 patos y 22 pollos | | 141 | 50 |
| Una oveja | | 55 | 00 |
| Una caja de galletas | | 6 | 00 |
| 4 docenas de cohetes | | 11 | 00 |
| 24 panes | á 1,25 | 30 | 00 |
| Gasto de buscar ansarones y comida para las aves | | 30 | 00 |
| Café azúcar, garbanzo, fideo, arroz, especies y bacalao | | 98 | 00 |
| 8 litros de aceite | | 26 | 40 |
| 2 sacos de carbón y leña | | 12 | 00 |
| 3 latas de melocotones | | 9 | 00 |
| Un kilo de galletas | | 5 | 00 |
| Una botella de ron y otra de anis | | 13 | 00 |
| 4 latas de tomate y 2 de pimientos | | 4 | 80 |
| 2o litros de leche | á 0,35 | 7 | 00 |
| 3 panes | a 1,25 | 3 | 75 |
| | Gasto total | 857 | 10 |
| | Dinero depositado | 627 | 50 |
| | A deducir | 229 | 60 |

Leiza Agosto 1920

Las 230 pts. que faltan, las han pagado los Srs. Sagastibelza y Castaños.

# ANTZARA JOKO ETA INGURUTXOKO JANTZIAK

1969-ko urtean Etxeberriko amonak eman zizkigun xehetasunak. Antzara jokoa goizen egiten omen zen, eta arratsaldean ingurutxoa. Festarako deia su-zirian ordez, tronpon-arekin egiten omen zen. Nola antzara jokoa inguruko herri guztietan egiten zena zen, Leitzera zaldi batzuk inguruko herri horietan apainduak ekartzen omen zituzten (Areso, Gorriti, Lekunberri, Beruete...)

## ZALDI APAINDURAK

Eserlekuaren gainean, lore-dun manta bat. Zakuto zuri bat buztanean sartua, eta honen beiko puntean kaskarilloak. Koloretako zintak, bi edo hiru zentrimetroko zabalekoak, goitikbera zakutoari josiak. Borla bat, buztan gainean, gora begira. Lepoan, uztai bat, katxeta (edo iltze apaingarri) eta txintxarri txiki batzuekin apaindua (hauek txintxarriak ziren, kaskarrilloak ez). Beste zakuto txiki baten sartuak kopetako ileak, eta zakuto hau ere kaskarillo txiki-txiki batzutaz inguratua. Uhalak katxetakin apainduak.

## KAPITAINAN JANTZIAK:

Txapel txuria, borla gorrikin. Bi zinta bularrean gurutzatuak. Ezpata. Pajarita zeramakin edo ez zalantzan jartzen zuen.

## MUTILEN JANTZIAK:

Nahiz lehen txapel gorrikin ibiltzen omen ziren, azkenekoan beltza eraman omen zuten. Lepoan zapi gorria (hau azkenekoan ez omen zuten eraman). Atorra txuria, mauke luzekin. Lazo gorri bat ezkerreko besoan. Galtza txuriak, galon urre kolorekoakin (goitik behera, eta behean bi uztai). Gerriko gorria. Galtzerdi beltzak. Espartzin txuriak lokarri gorriakin (anka gainean gurutzatuz).

## NESKAK:

Antzara jokoko mutilak berak, lehendik hautatuak izaten omen ziren. Beraien jantziak: blusa txuria, mantala grisa akanpanatua, eta gerrin estua, hatzetik lurra jotzeraino. Galtzerdi beltzak eta espartzin txurik.

## MUSIKA TRESNAK:

Txistuaz gain, garai haietan tronpa ere jo eta dantzatzen omen zen. Alfaroko Martin Joxe Otermin zenak jotzen omen zuen. (Horren semea, Frankiko Migel Joakin izanen zen, noski, eta bere illoba Betraneko Jose Joakin) Peustenen salgai egoten omen zen tronpa delakoa (ez mozkorgai bakarrik, baita musika tresna ere).

ARGAZKIAK: Oker ez banago, uste dut Leitzan badirela 20-08-11 ateratakoak, Iruñako "Zaragüeta e hijos" eta Altsasuko Martin Fernandez-ek.

**JOXE**

# LEITZEKO ELIZE

Pestetan bazkalondoan senide eta lagunekin mayen lasai gaudela gustatzen zaigu histori zaharrak kontatzea. Has gaitezen Leitzeko elizetik.

Ez dakigu noiz egin zuten aurreneko elize Leitzen. Dakiguna da 1410. urtean bazela. Urte honetan Naparroako errege Karlos III.ak dirua eman baitzuen ezkilletorre berria egiteko ( "Se reedificó la torre de su iglesia en 1410" dio Yanguas y Mirandak bere "Diccionario de Antigüedades del Reino de Navarra" liburuaren hirugarren tomoan). Ez daikugu aurreneko eliz hori oraingo elize dagoen leku berean zen edo ez.



*Leitzeko Elize*

Oraingo elize dagoen lekuan XVI. mendearen bukaeran egin zuten. Lezaungo Domingo de Bulano hargin-maisua buru zutela egin zuten. Hasi ziren elize eraikitzen baina gelditu behar izan zuten dirurik ez zegoelako, batzuk ez baitzuten zor zuten dirua ordaintzen. Begira zer dion "Catalogo del Archivo Diocesano"k: "Año 1602. El Sr. Fiscal y los primicieros de la parroquial de Leiza, contra varios particulares de la villa, que adeudan varias cantidades a la iglesia. El Visitador Obregón mandó urgirles el pago, para acudir a maese Domingo de Bulano, quién comenzó la obra de la iglesia y la había paralizado por falta de fondos. Mandato de visita." 500 dukadu zor zizkioten elizari.

Egin eta handik 150 urtetara ganga (bóveda) ia erorian zegoen eta Leitzeko agintariak obispoari baimena eskatu zioten ganga bota eta berria egiteko. Eta baita elize hazitzeko ere, azkeneko urteetan biztanleriak gora egin baitzuen ("en estos momentos contaba con más de 1.200 personas de comunión", dio "Catálogo Monumental"ak). 1749. urtean eman zioten baimena elize berritzeko. Baina lanak ez ziren hasi 1762. urtea arte. Urte honetan markatu zuten lurra gurutzadura (crucero) berria egiteko Azpeitiko Frantzisko IBERO eta Beasaingo Martín KARRERA arkitektuak. Ibero eta Karrera XVIII. mendean gipuzkoako arkitektorik hobeenak ziren.

Iberotarrak Azpeitiko arkitekto-familia ziren. Frantzisko Iberok (1724-1795) bere aita Inaziorekin burututako eraikuntzez gain, Asteasuko elizeren gurutzadura, Azpeitiko San Sebastian elizeko fatxada, Elgoibarko hilerria eta Bergarako bost zubi eraiki zituen. Ibero Donostian bizi zen eta handik etorri zen Leitzeko gurutzadura markatzera.

